**KIROLA: IÑIGO ROLDAN, MENDIKO BIZIKLETEKIN LASTERKA /12**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko martxoaren 12a • IV. urtea · 147. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**MADDI GARMENDIA**

*"Herrian dagoen segurtasun faltak luze iraungo du Haitin"*/9

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

**Barruan, zure herriko aldizkaria**




**Goienka2a**
**Nekazaritza ekologikoa: hastapen ikastaroa Eskoriatzan**

**ASTEKO GAIA: ATENTATUA MADRILEN ETA ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK /2-7**



**Jose Ramon Beloki**
**EAJ**
*"Sarraskiak nazka ematen digu. Alderdiek ez dezatela hau euren alde erabili"*



**Arnaldo Otegi**
**BERGARAKO EKIMENA**
*"Hipotesi bezala ere ez dugu aintzat hartzen ETA izan denik. Gaitzetsi egiten dugu ekintza"*



**Manuel Huertas**
**PSE-EE**
*"Gure 'irailaren 11' izan da. Demokraziaren aurkako inoizko eraso gogorrena izan da"*



**Begoña Lasagabaster**
**EA**
*"Atentatua ideien eta herrien kontra jotzeko ez erabiltzea eskatzen dut"*



**Xabier Sarasua**
**ARALAR-ZUTIK**
*"Hiritarren aurkako atentatu indiskriminatu hau gaitzetsi egin gura dugu"*



**Patxi Coira**
**EB**
*"Terrorismoa da, bizitzari uko egitea da. Bateratu egin behar dugu, salatzeko"*



**Jose Eugenio Azpiroz**
**PP**
*"Zuzenbide Estatua ez da honen aurrean makurtuko: legearekin erantzungo du"*

**ARRASATE**

## Monterron itxita, arbola batzuk bota behar dituztelako

Arrasateko Monterron parkea itxita dago joan den astelehenaz geroztik, eta martxoaren 29ra arte egongo da itxita. Kontua da parkeko zenbait haritz gaixorik daudela. Are gehiago, orain dela gutxi haritz bat jausi egin zen. Esandakoaren arabera, *Cerambicidos* izeneko intsektu batek barrua jan die haritzei, hustu arte. **/8**

## HAUTESKUNDEAK 'ASTELEHENEKO GOIENKARIA'-N

Hauteskunde egunak Debagoienean emandako guztia irakurri ahal izango duzue *Asteleheneko Goienkaria*-n. Ohiko egunkari saltokietan eskuratu ahal izango duzue astelehenean, oraindik harpidetu ez zaretenok, eta bakarrik 0,8 euroren truke..., inork baino merkeago.


LEIZE GAZTE MODA
L Z E
Hemen dira udaberria eta uda!
Zatoz, estreinatu dugu denboraldia
Secundino Esnaola 13 DONOSTIA · Fraiskozuri 5 BERGARA · Olarte 5 ARRASATE




GOIENKARIA

## Ipuinen liburua harpideendako

Debagoienean jasotako lau ipuinez osatutako liburua argitaratu du Goienak. Datorren astetik aurrera, *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun direnen artean banatuko dute. Debagoieneko lau idazlek jaso edo egin dituzte ipuinak, eta lau ilustratzaileren laguntzaz osatu da bilduma. *Hala bazan... Debagoieneko plazan* izena du Goienak argitaratu duen ipuin liburuak. Hain zuzen ere, joan den eguaztenean Aramaion aurkeztu zuten bilduma Goienako ordezkariek eta idazleek eurek. **/19**


**DEBAGOIENA**/4 • **HERRIZ HERRI**/5 • **IRITZIA**/6-7 • **KIROLA**/10-11 • **NON-ZER**/16-17 • **SAILKATUAK**/18 • **ESKELAK**/19 • **ZERBITZUAK**/20 • **DENBORA-PASA**/21

ATENTATUAMADRILEN

# Izua eta ikara sortu du Debagoienean ere Madrilgo atentatuak

*Elkarretaratzeak egin ziren atzo iluntzean herri guztietan*

GOIENKARIA

**Izua, ikara, higuina, harridura, negargura, amorrua… hitz horiek guztiek balio dute atzo Madrilen izandako atentatuak debagoiendarren artean sortu duena adierazteko.**

Atentatua gaitzesteko elkarretaratze jendetsuak egin ziren atzo iluntzean Debagoieneko herrietan; indar politikoek, udalek eta beste erakunde batzuek ere gaitzetsi egin zuten atentatua. Azken datuen arabera, 186 hildako eta 1.000 zauritu baino gehiago utzi ditu atzoko ekintzak. Goizeko 07:30ak eta 08:00ak artean, 10 lehergailuk egin zuten eztanda Madrileko hiru tren geltoki ezagunetan, eta beste hiru lehergailu zartatu barik geratu ziren. Lehergailuak trenetan jarriak zeuden.

**ZALANTZAK EGILEEI DAGOKIENEZ**

Oraindik, inork ez du beregain hartu atentatua. ETA zen hasieran denen jomuga, baina hainbat politikok zuhurtziaz jokatu du egileei izena ipintzerakoan. Espainiako gobernuburu Aznarrek eta PPko idazkari nagusi Raxoik, esaterako, ez zuten ETAren izena erabili atentatua gaitzesterako deklarazioetan, eta Arnaldo Otegik gaitzetsi egin zuen ekintza, esanez ez zuela uste ETA izan zenik egilea.

Ibarreko udalek, Arrasateko Udaleko Enpresa batzordeak, Mondragon Unibertsitateak, Euzko Gaztedi Indarrak… gaitzespen gutunak bidali zituzten GOIENKARIAra, besteak beste, "Madrileko hilketak justifika ezinak eta negargarriak" direla adierazi eta hildakoen senideei elkartasuna adierazteko.



**ELKARRETARATZEAK IBARREKO HERRI GUZTIETAN**

**Ibarreko udal guztiek bat egin zuten atzo iluntzean Lehendakariaren deiarekin eta elkarretaratzeak deitu zituzten udaletxe aurrealdeetan. Elkarretaratzeetan herritar askok hartu zuen parte. Arrasateko zinegotziek, bestalde, eguerdian ere egin zuten elkarretaratzea udaletxe aurrean eta bat egin zuten Eusko Legebiltzarreko Bozeramaileen Batzordearen idatziarekin.**

## Hainbat debagoiendarrek gaitzetsi egin du Madrilgo atentatua



### MIKEL IRIZAR

IRITZI EMAILEA

Izugarrizko astakeria dela esateko nor izan den jakin beharrik ez dago. ETA izan bada, Estatuaren bertsio gogorrenak argumentuak izango ditu euskaldunon kontra jarraitzeko. Arabiarrak izan badira, Irakekoa ordaintzen hasiko da PP.



### MAITE ARISTEGI

NAZIO EZTABAIDA GUNEA

Sarraski mingarria eta onartezina, errugabeek ordaindu dutelako. Egilea ETA balitz, konponbidea elkarrizketa bidez lortu beharko litzateke. Talde islamikoren bat izan bada, PPk noraino eraman gaituen erakutsiko luke atentatuak.



### PACO GARCIA

PSE

Hilketa izugarri horren biktimei eta haien senitartekoei elkartasuna adierazi nahi diet. Esan nahi diet herritarrei, politikariei,enpresariei, alor guztietako herritarrei, ordua dela terrorismoaren aurrean erreakzionatzeko, haren aurka jotzeko.



### FERNANDO LETE

ELKARRI

Gogor salatzen dugu Madrilgo atentatua. Horrelako egoerek, elkarrizketa baztertu eta muturreko aldeak gogortzen ditu. Edozein gatazkaren gainean, elkarrizketa da irtenbidea. Horixe ikusi da Elkarriren sinadura batze egunean ere.



### KOLDO AZKOITIA

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA

Jendez, langilez, haurrez beteriko trenetan lehergailuak eztandaraztea..., hori da gizagabetasun neurrigabekoaren erakusketa beldurgarria. Ez dago leungarririk. Ez dago ñabardurarako lekurik. Atzoko atentatua da bereziki doilorra.



### ITZIAR LAMARAIN

PP

Ankerkeria honen aurrean, eskatzen dudana da jendeak kontzientzia har dezala. Izugarrikeria hauen aurkako jarrera tinkoa har dezala. Halako kirtenkeriaren aurrean euren salaketarik gogorrera adierazi dezatela, ozen.



### MARTIN GARITANO

KAZETARIA

Datu zehatzik gabe arriskutsua da balorazioak egitea. Zibilen kontrako ekintza indiskriminatu hau ez da bidezkoa. Eztabaida politikoa demokrazian egin behar da. Zoritxarrez, euskaldunok ez dugu demokraziaz gozatzerik gaur.



### PILAR ETXANIZ

ZUTIK

Bigarren mundu gerratik, biktima zibil gehien izan dituen atentatua izan da. Salatu eta gaitzetsi egiten dugu. Erantzuleak gure etsaiak eta Euskal Herriaren etsaiak dira. Izugarria izan da, eta ez dugu hauteskundeekin lotu nahi.



### GERMAN KORTABARRIA

ELA

Sindikatu guztiok bezala, ELAk ere gaitzestu egiten du ekintza terrorista eta eraso indiskriminatu hau. Ez du inongo justifikaziorik. Zaila da esaten honek zer eragin izango duen hauteskundeetan; ea datozen egunotan ezer argitzen den.



### IÑAKI GALDOS

EA

Sarraski bat izan da, berdin da nor izan den, edo biktimak langileak edo enpresariak izan. Ideien izenean hiltzea astakeria da. Bestalde, honek, zoritxarrez, hauteskundeetan eragingo du, pasioak nagusituko direlako.

M-14 / HAUTESKUNDEAK

# Oñati, Arrasate eta Aretxabaleta aukeratu dituzte Kongresurako Gipuzkoako hautagaiek

OIHANA ELORZA

**Atzo, eguena, Madrilen izan zen atentatuaren ostean, alderdi politikoek bertan behera utzi zituzten kanpainako ekitaldi guztiak. Hala ere, Kongresurako Gipuzkoako hautagaiak izan dira aste honetan ere Debagoieneko herrietan.**

EAJren Gipuzkoako hautagaia, Jose Ramon Beloki Arrasateko San Viator ikastolan eta Oñatiko batzokian egon zen eguaztenean. Berarekin batera, Imaz, Juaristi, Txabarri eta ibarreko hainbat alkate egon ziren Arrasaten. Beloki, Juaristi eta Albistur, berriz, Oñatin ere egon ziren, egun berean.

Aralar-Zutik koalizioak ere ekitaldi bat baino gehiago egin ditu astean. Martitzenean, esaterako, Arrasateko Monterron jauregian egon ziren Xabier Sarasua eta Pilar Etxaniz. Eguaztenean, berriz, Aretxabaletako udaletxean aurkeztu zuten taldea, aipatutako biak eta Richard Irazustak. Bestalde, zapatuan, Oñatiko Foruen plazan eta domekan Elgetakoan ibili ziren koalizioko kideak, programa aurkezten.

Bergarako Ekimenak ere ekitaldi bat baino gehiago egin ditu. Martitzenean, Jose Luis Elkoro eta Rafa Diez izan ziren Bergaran, eta asteburuan ere autodeterminazioaren aldeko botoa eskatu zuten Bergaran eta Oñatin, besteak beste.

Alderdi Sozialistako hautagaia, Manuel Huertas, Arrasaten egon zen astelehenean, Jesus Egiguren, Paco Garcia eta Elvira Cortajarenarekin batera.

Ezker Batuak ere Arrasate aukeratu zuen. Egubakoitzean, Patxi Coira, Antton Karrera eta Oskar Matute izan ziren, besteak beste.

Eusko Alkartasunak, berriz, ez du ekitaldi ofizialik egin aste honetan, baina furgoneta egunero ibili da ibarreko herrietan.

PPk ez du kanpainako ekitaldirik egin Debagoienean.



UBANE MADERA
Antton Karrera, Oskar Matute eta Ander Rodriguez, Arrasateko Seber Altube plazan.



IKER BARANDIARAN
Paco Garcia, Manuel Huertas, Jesus Egiguren eta Elvira Cortajarena sozialistak.




EDU MENDIBIL
Bergarako Novedades aretoan egin zuen ekitaldia Bergarako Ekimenak.




GOIENKARIA
Xabier Sarasua eta Pilar Etxaniz, Arrasateko Monterron jauregian.



UBANE MADERA
Ibarreko alkateak, Egibar, Gonzalez Txabarri, Imaz eta Juaristi jeltzaleak, Arrasaten.




GOIENKARIA
EAk ez du aste honetan ekitaldirik egin, baina propaganda jarri du.

TOLDOS LETE C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto
Kataide Industrialdea 14 Musakola • **ARRASATE** • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabiena auzoa 6 • **IURRETA** • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

Carrión música, s.a.
• Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
• Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.
Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
**KONTSULTA DOHAINIK**
**Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.**
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua
Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

M14 / HAUTESKUNDEAK

# Hautagai gipuzkoarrak Madrilera begira

GOIENKARIA

Guztia gertu dago etzi, martxoak 14, egingo diren Espainiako Gortetarako hauteskundeetarako. Egun horretan, Espainiako Kongresuan eta Senatuan datozen lau urteotan ordezkatuko gaituztenak aukeratzeko modua izango dugu. Era berean, Estatuko gobernu berria aterako da hauteskunde hauetatik. Zoritxarrez, ustekabeko gertakizun batek eragina izan du kanpainaren azken txanpan: atzo, martxoak 11, Madrilen izan ziren atentatuek. Eta, iritzi guztien arabera, atentatuok eragina izango dute baita emaitzetan ere. Eragin hori zenbaterainokoa den ikusteke dago.

Horrez gain, hauteskunde hauek bi berrikuntza ekarriko dituzte: batetik, Bergarako Ekimenaren aldekoek ezin izan dituzte zerrendak aurkeztu, legekanporatzea dela-eta; taldeak bere boto paperak proposatu ditu. Bestetik, bi koalizio berri aurkeztu dira: Aralar-Zutik EAEn eta Nafarroa Bai, Nafarroan.

**DEBAGOIENDARRAK HAUTAGAI**

Bederatzi debagoiendar daude Gorteetarako hautagaien artean. Bi zerrendaburu izendatu dituzte euren alderdiek: Xabier Sarasua, Kongresurako (Aralar-Zutik) eta Iñaki Galdos, Senaturako (Eusko Alkartasuna).

Beste hautagai debagoiendarrak honakoak dira: Aralar-Zutik koaliziotik, Kongresurako, Pilar Etxaniz (bigarren) eta Ainhoa Larrañaga (hirugarren); IU-Ezker Batua taldeko ordezkari moduan, Kongresurako baita ere, Andres Diez (bigarren) eta Joseba Ugalde (hirugarren); baita Isabel Salud ere, bigarren Senaturako. Elvira Kortajarena bigarren doa Kongresurako PSE-EE alderditik, eta Pello Urizar, azkenik, hirugarren da Eusko Alkartasuna alderdiko zerrendetan, hau ere Kongresurako.

Aurreko hauteskunde orokorretan, alderdiok honako emaitzak lortu zituzten: EAJ eta PP alderdiek bina diputatu, eta PSE-EE eta EAk, bana. Senatuan, EAJ alderdiak hiru eserleku lortu zituen, eta PPk, bat.

*Gurean, 54.120 lagunek bozkatu ahal izango dute; 2000n baino 173 gehiagok*

*Aralar-Zutik eta EAko zerrenda buruak ibarrekoak dira; beste zazpi ibarreko, hautagai*

*Gipuzkoan sei diputatu eta lau senatari aukeratuko ditugu hauteskundeotan*

**PARTE-HARTZEA**

581.675 gipuzkoarrek izango dute botoa emateko eskubidea; horietatik 564.495 hemen bizi dira, eta gainerakoek atzerritik bidali ahal izan dute bozka. Gure lurraldea ordezkatzeko sei diputatu eta lau senatari aukeratuko ditugu etzi.

54.120 debagoiendarrek eman ahal izango dute botoa, aurreko hauteskunde orokorretan baino 173 gehiagok. 65 mahai egongo dira. 2000ko hauteskundeetan, ibarreko %51k eman zuen botoa; %49 abstenitu egin zen. Batasunak abstentzioa eskatu zuen orduan.

**JOSE RAMON BELOKI** / EAJ

## *“Geu izango gara Madrilgo Kongresuan euskal talde bakarra”*



GOIENKARIA

**EAJ alderdiko Gipuzkoako zerrendaburua Legazpin jaio zen 1947an. Hainbat euskal komunikabidetan lan egin du eta ardura postuak izan ditu Jaurlaritzan eta Foru Aldundian. Azpimarratzen du Euskal Herriak lehenbailehen behar duela errekonozimendu juridiko eta politikoa, eta Madrilen EAJk hori defenditzeko konpromisoa azaldu du.**

**Emazkiguzu hiru arrazoi hautesleek zuri botoa emateko.**

Alde batetik, EAJ izango da euskal talde bakarra; eta neurri batean, horrek duen garrantzia ez da bakarrik geuk ematen dioguna; baita han, Madrilen, ematen zaiona ere. Ibarrak esan zuenean nahiago zuela abertzaleok ez gintezen han egon, esan nahi zuen ez gintezela egon talde bezala. Hau da, ez dute arazorik beste edozein formulatan bagaude, talde mistoan, adibidez; baina ez dute euskal talderik nahi.

Bigarrenik, konbentzituta nago une oso inportantean gaudela euskaldunok, eta ez bakarrik hauteskunde egunean bertan; baita hortik aurrera ere. Talde lanean, elkartuta eta ideiak garbi ditugula egin behar dugu aurrera. Euskal nazioaren errekonozimendu juridiko-politikoa lehenbailehen behar dugu; demokrazian bultza latz egin behar dugu; eta bakea ere behar dugu.

Eta hirugarrenik, garbi daukagu Euskal Herriaren izenean lan egin nahi duen ororekin lan egiteko prest gaudela. Momentu honetan, geuk ordezkatzen dugu ikuspegi hori, gehienbat.

**Debagoiendar batek zer espero dezake Madrilen egiten den politikatik?**

Hiru gauza egin behar dira Madrilen. Batetik, euskaldunak garela esan, eta euskaldunok ez garela bakarrik han gauden ordezkariak; Euskal Herria Nafarroa eta Iparralde ere badela. Debagoiendar batek bere burua euskaldun bezala ikusten badu, hori ere nahi izango du. Bestetik, autogobernu berria nahi dugu; nazioaren errekonozimendu juridikopolitikoa, eta eskumen gehiago: hau da, Ibarretxe Planeko proposamenak. Azkenik, esango nieke debagoiendarroi Madrilera joaten garela enpresaburu asko joaten diren moduan: ibarreko herritarrek eta bertako enpresa eta erakundeek, baldin eta Madrilen defendatu beharreko proiektuak badituzte, eskumenak han daudelako, Madrilera joan beharko dute. Gu hara goaz, arrasatearren, bergararren… euskaldun guztien izenean.

*“Madrilera goaz enpresaburu asko bezala: proiektu batzuk han defendatzera”*

**Komunikabideetan luzaroan egin duzu lan. Hedabideen aldetik, zelan ikusi duzu kanpaina hau?**

Ia guztiek egurra eman digute. Azken lau urteotan, aginte politikoa modu garbian jarri zaigu aurka euskaldunoi; ez bakarrik Espainiako Gobernua; baita hori sustengatzen duen Alderdi Popularra, eta PSOE. Euren erasoan, hainbat erakunde eta enpresa gure aurka jartzen ere saiatu dira; eta Debagoieneko enpresa batzuek badakite hori oso ondo, adibideak badaude. Guztiek libre ikusi dute euskaldunoi, eta bereziki abertzaleoi, egurra ematea. Eta komunikabideek paper garbia jokatu dute hor: alde batetik, PPk, aginte politikoa erabiliz, erosi egin ditu hainbat komunikabide; eta beste batzuk, zerbait atera nahian, aginteari inguratu zatzaizkio. Orain, ematen du kataluniar batzuei guri adina bizkarreko ematen hasi direla. Ezin dugu perspektiba galdu: azken lau urteotan gertatu dena ez da aldatuko baldin eta guk ez badugu aldatzen.

**ARNALDO OTEGI** / BERGARAKO EKIMENA

# *"Ajuria Enera edo Lizarrara bueltatzea, bi aukera ditugu"*

**Oztopoak oztopo, elkarrizketa politikorako mahaia sustatzeko kanpaina egiten saiatu direla dio Arnaldo Otegik. Hori lortzeko, autodeterminazioaren aldeko boto papera eskatu du Bergarako Ekimenak.**

**Bergarako Ekimena ez da kongresurako hautagaia, baina kanpaina egiten ari zarete. Zergatik edo zertarako?**

Madrilen egon behar da, bai, baina herri bezala, herri honek dituen eskubideak negoziatzeko eta estatuari negoziazio prozesu berri baterako dei egiteko, euskaldunok ordezkaritza bat osatuz. Hori da gure planteamendua, eta hori dioen boto papera banatzen saiatu gara, Espainiako Estatuak, Ertzaintzak eta Guardia Zibilak zailtasunak jarri dizkiguten arren.

**Zein mezu bidali nahi diozue herritarrari?**

Oso sinplea da: ziklo autonomikoa garaitua dago, eta etorkizuna beste era batean eraikitzeko aukera izugarria du orain herri honek. Eta horren aurrean bi aukera daude: EAJk planteatzen duena, alegia, Ajuria Enera bueltatzea PSOErekin, edo, Lizarrara bueltatzea, guk aukeratu dugun moduan. Gure ustez, ez gaude hauteskunde espainiar batzuen aurrean, bi aukera horien aurrean baizik.

**Euskal Herria aldaketa prozesuan dagoela diozue. Madrilek ere aldaketa behar du?**

PSOEren eta PPren arteko kanpaina zeren inguruan dabilen ikusi baino ez dago: estatu egoerak nolakoa izan behar duen da eztabaida nagusia. Hori horrela bada, guk uste dugu une historiko hau aprobetxatu egin behar dela, 1977an egin ez zen moduan, gatazka gainditu eta autodeterminazioa lortzeko. Horregatik, hori erreklamatzen duen euskaldun guztion ahots bateratua nahi dugu, duela 25 urte gertatu zena ez gertatzeko.

> *"Madrilen egon behar da, baina herri honek dituen eskubideak negoziatzeko"*

**Zein balio du, gero baliogabetu egingo duten botoak?**

Hemen egin behar den planteamendua da ezker abertzalea legez kanpo dagoela. Eta gure boto paper bakoitzak balioa izango du elkarrizketa politikoa sustatzeko eta akordio berriak sortzeko beharrezkoa den mahaia osatzeko.

**Aralar-Zutik koalizioaren karteletan, *Putreak* eta bestelakoak idatzi dituzte. Zein da zure iritzia?**

Ez zait inoiz gustatu horrelako terminorik erabiltzea, eta ez zait ondo iruditzen. Edozelan ere, esan beharra dago botoen bila ibiltzea egoera normalizatu baten, guztiz zilegia dela, baina une honetan, badira alderdi batzuk kanpaina egiten, Aralar barne, alderdi bat legez kanpo dagoela kontuan izan gabe. Ez gaude baldintza beretan, hori errealitatea da. Garrantzitsuena ez da hori gertatzea edo ez, baizik egoera politikoa oso grabea dela, eta horri buelta eman behar zaiola.

**Eman iezazkidazu hiru arrazoi, domekan, autodeterminazioaren aldeko boto papera aukeratzeko.**

Bi buruarekin eta bat bihotzarekin emango dizkizut. Batetik, elkarrizketaren alde eta euskaldunon arteko akordioaren alde daudenei, zentzua boto paper horrek ematen diela. Bigarren, Espainiako Estatuari min handiena ematen diona delako. Eta hirugarrena, bihotzarekin hau, herri honek beste dinamika bat behar duelako, elkarrizketa behar duelako eta hori sustatzea posible izango delako, herriaren gehiengoa abian jartzeko eta beste akordio bat sortzeko.



GOIENKARIA

**MANUEL HUERTAS** / PSE-EE

# *"Geldiune egoeratik aterako dugu Euskadi eta ibarrak igarri egingo du"*

**Manuel Huertas (Donostia, 1952) Eusko Legebiltzarreko kide da, eta Gipuzkoako PSE-EE taldeko burua. Euskaldunon "barne adostasunean" oinarrituko den politika defendatzen du, eta dio hori posible izango dela PSOErekin bakarrik.**

**Zergatik merezi du botoa PSOE alderdiak, zure ustez?**

Arrazoi askogatik. Espainiako oraingo gobernuak egiten diharduen lanaren erreferentzia garbiak ditugu, ez bakarrik Espainian, baita Euskadirekin duen harremanean ere: hau da, Euskadi ika-mikaren moduan aurkeztu nahi du, horri etekin politikoa ateratzeko. Euskadik konponbideak behar ditu, eta horiek emateko gai denak agindu behar du Espainian; izan ere, gobernu aldaketa beharrezkoa baldin bada Espainiarendako, ezinbestekoa da Euskadirendako. Gaur egungo egoerak herriaren geldiune politikora besterik ez darama.

Bigarrenik, alternatibaren erreferentea gara; ez dago beste alderdirik Espainian PPri txanda har diezaiokeenik. Sozialisten botoa ez ezik, aurrerakoi, ezkertiar eta independentismoaren alde ez dauden abertzaleen botoa eskatzen dugu; eta argi esan gaur egungo politikaren ordez honakoa ezarri nahi dugula: euskaldunon arteko barne adostasunean, eta Espainiarekin bat egitean oinarritzen den bat; izan ere, hori da Euskadiko politika tradizioaren ardatza.

Horrez gain, alderdi aurrerakoia gara eta premia handienak dituzten ekonomiei mesede egiten diegu: etxe propioa nahi duten gazteei, pentsiodunei, lan egonkortasuna nahi dutenei…

**Hemendik zoazten sozialistok zer defendituko duzue Madrilgo Kongresuan?**

> *"Debagoieneko ekonomia eta kooperatibak ondo zaintzeko asmoa dugu"*

Euskaldunok elkarrizketaren bidez eta legaltasunaren bidez adosten duguna defenditu nahi dugu. Arlo ekonomikoan, egiteke dauden azpiegiturak daude: euskal *Y*-a, Pasaiako portua, Hondarribiko aireportuaren arazoa konpondu… Estatuarekiko harremanen inguruko eta Estatuak EAEn duen administrazioaren inguruko arazoak konpondu nahi ditugu.

**Debagoiendar bati zelan eragingo dio lan horrek?**

Euskadik bizi duen geldiune egoeratik irtengo gara, eta hori debagoiendarrok sumatu egingo dute. Era berean, azpiegiturei dagokion guztia, eta Gipuzkoaren modernizazioari eragingo diona, oso erreferente garrantzitsua izango da herritarrondako. Horrez gain, pentsio politika hobetuko dugu, batez ere gutxienekoetan, eta justiziaren funtzionamendua ere hobetuko dugu, epaile gehiago ezarriz. Horrenbestez, debagoiendarrek Estatuko botereekin duten harremanek hobera joko dute. Bestalde, Gizarte Segurantzari dagokionez, kaxa bakarra defendituko dugu, pentsioak bermatzeko, beste neurri batzuen artean.

**Zein kezka azaldu dizkizute debagoiendarrok kanpainaren barne hemen egon zaren aldiotan?**

Gune honetako ekonomiaren inguruko kezkak eta ardurak oso garrantzitsuak dira, ikusi dudanez. Batez ere, kooperatibismoaren inguruan; izan ere, Espainiako ekonomian pisu handia du horrek. Badakit hainbat arazo daudela, ez direnak argi eta garbi, ozenki, esaten, baina hor daudenak, eta horiek saihesten ahaleginduko gara. Espainiaren, Gipuzkoaren eta Debagoienaren ekonomiek merezi duten moduan zaintzeko asmoa ditugu.



GOIENKARIA

M14 / HAUTESKUNDEAK

**BEGOÑA LASAGABASTER** / EA

# *"Batik bat, hiritarren eskubideak aldarrikatuko ditugu Madrilen"*



GOIENKARIA

**Irundarra (1962). Zuzenbidean lizentziaduna. Europako Parlamentuko Ortzadar taldeko funtzionarioa izandakoa 1987tik 1989ra. Eusko Alkartasuneko diputatua da Espainiako Gorteetan 1996a ezkero. EAko Exekutiba Nazionaleko kide.**

**Zerk bereizten du EA jeltzaleengandik?**

EAren azken helburua independentzia da, baina errealistak eta praktikoak izan behar dugu eta, betiere, herritarren borondatea errespetatu. Hori horrela, EAk beti aldarrikatu du autodeterminazio eskubidea. Bestalde, EAren zein EAJren aliantzak ezberdinak izan dira. EAk zentro edo ezkerreko indar nazionalistekin egin du bat beti, bai Espainian eta baita Europan ere; EAJk, ostera, beste ibilbide bat egin du. Horretaz gain, EAk beti izan du garbi Aznarri botoa ezin izan zitzaiola eman, eta denborak arrazoia eman digu: bagenekien PPk ez zuela errespetatuko euskal hiritarrok geure etorkizuna erabakitzeko daukagun ahalmena eta, bestalde, jakinekoa zen Gernikako Estatutua ez zuela beteko.

**Eutsiko diozue orain arte Madrilen izan duzuen diputatuari hurrengo lau urteotan ere?**

Hori da helburua, eta Bizkaian edo Araban beste ordezkariren bat lortzeko lanean ere badihardugu. Herritarrek dute hitza.

**Inkesta batzuek diote Gipuzkoan Aralar-Zutik koalizioak lor dezakeela orain arte EAk izan duen diputatu hori.**

Aralar-Zutik koalizio berria da; hortaz, beste aukera bat sartzen da lehia honetan. Hori esanda, gu konbentzituta gaude geure ordezkaritzari helduko diogula.

**Zertara joango da EA Madrilera ordezkaritza lortzen baldin badu?**

Batik bat, hiritarren eskubideak aldarrikatzera joango gara Madrilera, XXI. mendean horrelakoak aldarrikatzen ibiltzea gezurra dirudien arren. PP, hau da Espainiako eskuma erreakzionarioa, boterean zortzi urtez egon izanak hiritarren eskubideen aurkako lege aldaketa ugari ekarri du. Oinarrizko eskubide horiek berreskuratu egin behar ditugu. Bestalde, estaturik gabeko nazioek beren etorkizuna erabakitzeko daukaten eskubidearen alde egingo dugu. Azkenik, eskubide sozialen alde ere egingo dugu, aberastasuna hobeto bana dadin.

> *"Madrilen euskal hiritarroi eragiten diguten oinarrizko erabakiak hartzen dira"*

**Zer dago jokoan datorren domekan?**

Madrilen, gaur egun, euskal hiritarroi zuzen-zuzenean eragiten digun oinarrizko erabakiak hartzen dira. Hori horrela baldin bada, uste dut euskal hiritarron eskubideak defenditu behar ditugula, baita Madrilen ere.

**Eta debagoiendarron arazoak zela defendituko ditu EAk Madrilen?**

Bada, garraiobide ganorazkoak edukitzea oso garrantzitsua da, eta, horren harira, esate baterako, Lastertasun Handiko Trenarendako garraiobidea lehenbailehen egitea aldarrikatuko dugu eta hori egiteko inbertsioak ahalik eta azkarren egitea eskatuko dugu. Bestalde, ahalegin berezia egingo dugu industria, enpresa, heziketa, garapen eta teknologia kontuetan, alegia, Debagoienarendako oso inportanteak diren kontuetan.

**PP gobernutik kentzeko alternatibarik bada?**

Bai, esperantzak beti izan behar dira. Ikusi egin behar, hala ere, aukerarik baldin badu, PSOEk zer egiten duen: Rodriguez Ibarrari segi edo Maragallen tesiak aintzat hartu.

**XABIER SARASUA** / ARALAR-ZUTIK

# *"Aralar-Zutik koalizioak ilusio handia sortu du jende askorengan"*



GOIENKARIA

**Aretxabaletarra, 34 urte, Hezkuntza Fisiko eta Irakasle Ikasketak egin ditu. Ezkonduta dago eta bi seme ditu. Aralarko zinegotzia da Aretxabaletan.**

**Benetako aukerak ditu Aralar-Zutikek ordezkari bat izateko Espainiako Gorteetan?**

Uste dut baietz, inkestek hori diote behintzat. Parte hartzearen arabera, Gipuzkoan 40.000 boto eskas beharko genituzke ordezkaritza lortzeko. Ustekabe atsegina izan da koalizio honek jende askorengan sortu duen ilusioa.

**Ordezkaritza ateratzea da helburu nagusia?**

Bitarteko bat da hori. Guk uste dugu badagoela euskal gizartean masa sozial handi bat bere burua ezkertiartzat, aurrerakoitzat eta abertzaletzat daukana, baina aldi berean giza eskubide guztien aldeko jarrera tinkoa daukana eta uste duena aurrerabidea etorriko dela bide zibil eta politikoetatik bakarrik, eta orain arte ez duena izan zeinek ordezkatuko. Orain, berriz, Aralar-Zutikek eskaintzen du aukera hori.

**Inkesten arabera, Begoña Lasagabasterrek edo zuk zeuk, bietako batek lortuko duzue.**

Nahiko genuke guk ateratzen duguna PPren edo PSE-EEren kaltetan izatea. Egia da, halere, azken urteetatik hona EA beherantz doan indarra dela.

**Une onean datoz hauteskunde hauek zuendako?**

Ez. Hauteskunde hauek ez dira gure benetako hauteskundeak, baina Euskal Herriarendako garrantzitsuak diren hainbat erabaki Madrilen hartzen diren bitartean, eta bide zibil eta politikoen aldeko hautua egiten den momentuan, ezinbestekoa da ahotsa foro guztietan edukitzea.

**Ideologikoki zela definituko zenuke zeure burua?**

Arazo sozialekin kezkatuta dagoen pertsona naiz, eta arazo sozial horietatik abiatuta, une honetan ikusten dut premia Euskal Herrian ezkerreko indar soberanista indartsua eraikitzen hastekoa. Ze une honetan ziklo politiko baten amaieraren aurrean gaude. Eta, amaitzera doan ziklo politiko honetan egon diren bi estrategia nagusiak agortuta daude: bai autonomismoaren bidea eta baita borroka armatuarena ere. Euskal Herriko gehiengo handi batek onartzen du bi estrategia horiek agortuta daudela. Beraz, ziklo politiko berri baterako oinarriak eraikitzen hasi behar dugu, eta ziklo politiko berri horretarako oso inportantea da burujabetzaren aldeko ezkerreko foro indartsu bat edukitzea.

> *"Ezkerreko indar soberanista indartsua eraikitzen hasteko ordua da"*

**Zer esango zenieke Aralar-Zutiken kartelen gainean irainak ipintzen dituztenei?**

Batetik, penagarria dela horrelako jarrerak ikustea hainbat jenderengan, ze horrelako jokabideak darabilen jendeak deskalifikatu egiten du interesgarri eta aberasgarri izan ditzakeen beste hainbat ideia. Bestetik, badakigu jende gutxi dela horrelako joko zikinean dabilena, baina pena ematen digu beste hainbat jende isilik geratzeak.

**Zer adierazi nahi duzue AZ horrekin?**

Aralar-Zutik da koalizio bat eta koalizio honek izan nahi du Euskal Herrian dagoen ezberdintasunaren eta aniztasunaren ispilu, eta A-tik Z-ra doan horrek aniztasun hori islatu nahi du. Bestalde, esan gura du Aralarrek eta Zutikek bat egiten dugula Euskal Herria ezkerretik eraiki beharraz; eta Euskal Herriak erabaki ahalmena duela pentsatzerakoan, eta autodeterminazio eskubidea zein independentzia beste edozein aukera bezain zilegi dela aitortzerakoan.

M14 / HAUTESKUNDEAK

**PATXI COIRA** / EB

# *“Boto ezkertiarra gure aldeko botoan bateratu behar da”*



UBANE MADERA

**Lehen hauteskunde kanpaina da Patxi Coirarentzat, baina pozik eta baikor dago. Inkesten arabera, igoera handia izango du EBk domekako bozketan, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko ordezkariak Madrilgo Kongresuan izango direla dio Coirak.**

**Nolakoa izan da kanpaina?**

Ezker Batua alderdiak ez du botoa lau urtean behin bakarrik eskatzen. Beti ari da lanean, eta hori horrela dela badaki jendeak, argi ikusi dugu. EBk esaten duena egiten du, eta egiten duena esaten du. Jendeak eskertu egiten du zintzoa izatea, eta datuen arabera, egundoko igoera izango dugu.

**Ze pisu dauka EBren aldeko botoak?**

Pisu izugarria dauka. Orain, momentu historikoa bizitzen ari garela diote inkestek, eta beraz, pisua handia da. Une honetan, boto ezkertiarra EB alderdiaren aldeko botoan kontzentratu behar da. Oso eraginkorra izango den botoa da, gainera.

**Langabezia, etxebizitza, bikoteen legea, generoa ... gazteen gaiak dira. Gazteen artean, ordea, abstentziorako joera dago.**

Hiru gonbidapen ditugu gazteentzako. Bat: guk 16 urtetik gorakoendako botoa eskatzen dugu. Lanerako eta ezkontzeko nahikoa da adin hori izatea, beraz, zergatik ez bozkatzeko? Bi: etxebizitzan ere ez du balio “egingo dugu” esatea. Guk egin dugu. Batetik, egun, EAEko etxebizitzen %40 babes ofizialekoak dira. Bestetik, *Alokabide* zerbitzua jarri dugu martxan. Dagoeneko 1.000 etxebizitza daude alokatzeko gobernuaren bitartez, prezio onean, eta urtea amaitu orduko, beste 1.000 gehiago sortu nahi ditugu. Hutsik dauden etxeak zigortu egin ditugu. Hiru: eutanasia aktiboa legeztatzea eta droga kontsumoa legeztatzea ere eskatzen dugu.

> *“Ezker Batuak esaten duena egiten du, eta egiten duena esan”*

**AHT proiektua geldituko duzue Madrilen?**

Beti esan dugu proiektu hori astakeria hutsa dela, eta horixe esango dugu aurrerantzean ere. Ehuneko 0,45ek bakarrik erabiliko dute AHT. Horietatik, %32 ikasleak dira, eta ezin dute ordaindu. Gainontzekoak langileak dira, baina horiek ere ezin izango dute egunero-egunero ordaindu. Gainera, tren horrek ezin izango du zamarik garraiatu. Beraz, zertarako egin balio ez duen proiektu bat? Guk proposatzen duguna da gipuzkoar guztiok erabiliko dugun txartel bakarra. Edozein garraio publiko erabiltzeko balioko digun txartel bateratua.

**Raxoi-Zapatero. Nolakoa izan behar du hurrengo gobernuak?**

Guk aniztasunaren aldeko gobernuen alde egiten dugu, gobernuan ahalik eta jende gehiago egotea herriarentzat onuragarria delako. Hemen ere hirukoa gaude gobernuan, eta gauzak ondo egin ditugula uste dut. Hala ere, ez genuke sozialistekin gobernatuko, hauek nahi dutena egin behar badute, Katalunian ikusi dugun bezala. Horregatik da baliagarria EBren aldeko botoa, “honaino bai, baina hemendik aurrera ez” esaten ausartzen den alderdia delako. Kontzientzia eta eragina sortzen dituen botoa da Ezker Batuaren botoa.

**Eman hiru arrazoi EBren alde bozkatzeko.**

Guztion bakea eta zoriona bermatuko dituen botoa izango delako. Guztien justizia soziala ezarriko duelako gizartean. Eta, ingurumenaren ikuspegitik, Euskal Herri iraunkorraren (sostenible) alde lana benetan egiten duen alderdi bakarra delako.

**JOSE EUGENIO AZPIROZ** / PP

# *“Ibarreko langileen egoera hobetu egin dugu; horretan segituko dugu”*



GOIENKARIA

**Alderdi Popularreko Gipuzkoako zerrendaburuak politikan egin du lan 1977tik hona. Hiru legealditan diputatu izan da. Giza Politika eta Enplegu sailetan jardun du, eta Debagoieneko enpresa txiki eta ertainei eta kooperatibei laguntzea du helburu.**

**Zeintzuk dira Alderdi Popularraren argumentu nagusiak botoa eskatzeko?**

Orain arteko lorpenen ildotik jarraitu nahi dugu. Datorren legealdian bi milioi lanpostu sortzeko konpromisoa hartu dugu, eta kontratu hobeak bultzatuko ditugu. Politika horretan jardun dugu orain arte: PSOEk bultzatu zituen zabor-kontratuak eta aldi baterakotasuna murriztu egin ditugu, besteak beste. Hurrengo helburuak dira zergak berriro murriztea, era horretan gizarte zibilari protagonismoa, baliabideak eta dirua itzultzeko.

Orain arte Alderdi Popularrak ondo kudeatu du Gizarte Segurantza, eta horrela jarraitu nahi dugu; orain 8 urte, bilioi erdi pezetako defizitarekin jaso genuen, eta orain superabit egoeran dago. Hortaz, gazteek badakite zahartzaroan pentsio sistema ona izango dutela, eta gaur egungo pentsiodunek —Gipuzkoan 150.000 bat— euren egoera ziurtatuta dute. Kaxa bakarraren aldeko apustua egiten dugu; hori ona da gipuzkoarrondako.

Oro har, Alderdi Popularrak proiektu indartsua du, alderdi bateratua da eta aberastasuna sortzen jarraituko duela agintzeko sineskortasuna eskaintzen du. Euskadin, azken 8 urteotan, gure errenta hamar igo da, eta bizi kalitatea askoz hobea da orain. Europar irizpideekin gero eta gehiago gaude bat eginda.

**Debagoieneko boto emaileari zein mezu helarazi nahiko zenioke?**

> *“Kooperatiben eskakizunak entzun ditugu, eta badakite laguntzak eman dizkiegula”*

Arazo eta proiektu garrantzitsuak Madrilen jorratzen dira, eta han lan egin beharra dago. Eta ziur nago orain arte han egin duguna debagoiendarrok sumatu dutela eta sumatzen jarraituko dutela. Adibidez, aurrekontu politika zorrotza eta gardena ezarri dugu, gastua kontrolatzeko eta defizita murrizteko; zor publikoa ere murriztu dugu, eta monopolioak konpetentziara zabaldu ditugu. Horren emaitza izan da fiskaltasunaren murrizketa, eta hori ibarreko guztiok sumatu ahal izan dute; izan ere, Estatuak, eta Foru Aldundiak, ondorioz, baliabide gehiago jaso ditu.

**Ezagutuko dituzu ibarreko ekonomia eta lan egoera.**

Bai, eta Debagoieneko langileek eta kooperatibistek igarri ahal izan dituzte hainbat hobekuntza, eta jakin bezate horretan jarraituko dugula.

Gipuzkoan, 8 urteotan, 77.000 lanpostu gehiago sortu dira, eta 300.000 bat lagun izan dira lanean; kopuru historikoa da, kontuan izanda 1977tik 1995era ia ez zela enplegurik sortu eta Euskadin 45.000 lanpostu deuseztatu zirela. Enplegu hori Debagoienean ere sortu da, jakina. Debagoieneko langileen egoera hobetu egin da: profesional autonomoek ez dituzte hainbat zerga ordaindu behar izan; euren Gizarte Segurantza egoera hobetu egin dugu…

Kooperatibei dagokienez, euren eskakizunak entzun ditugu, eta badakite euren jarduerari laguntzeko neurriak ezarri ditugula.

Gune honetan enpresa txiki eta ertain asko dago, eta horien egoera hobetzeko lan egin dugu eta horretan segituko dugu, kreditu programekin, dirulaguntzekin, inbertsioekin…

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko martxoaren 12a

ANTZUOLA

## Juanito Oiartzabal mendizaleak berbaldia egingo du eguenean, hilak 18

Arrola mendizale elkarteak urteko batzar orokorra egingo du datorren eguenean, hilak 18. Olaran etxean egingo dute batzarra, 19:00etan. Hantxe, besteak beste, zuzendaritza aldatuko dute; eta hurrengo egunetan, presidentea ere aukeratu beharko dute.

Batzarraren ostean, 19:30 aldera, Juanito Oiartzabal mendizaleak diapositiba emanaldia eta berbaldia egingo du, hamalau zortzimilakoen gainean. Bertaratzen direnek Oiartzabalekin solasaldia egiteko aukera ere izango dute. /AINTZANE IRIZAR



AMAGOIA LASAGABASTER

ARRASATE

## Monterron itxita, zuhaitz batzuk bota behar dituztelako

Arrasateko Monterron parkea itxita dago joan den astelehenaz (hilak 8) geroztik. Eta martxoaren 29ra arte itxita egongo dela jakinarazi digute Arrasateko Udaletik. Kontua da parkeko zenbait haritz gaixorik daudela.Are gehiago, orain dela gutxi haritz bat jausi egin zen. Esandakoaren arabera, *Cerambicidos* izeneko intsektu batek barrua jan die haritzei, hustu arte. Horren ondorioz, zuhaitzek egonkortasuna galdu dute eta edozein momentutan jausi daitezke. Hala, hori gertatu baino lehen, Udalak erabaki du zuhaitzok botatzea, guztira, sei haritz. Eta lanak egin arte, parkea itxita egongo da. Bota behar dituzten haritzak oso antzinakoak dira, Monterron zabaldu zuten garaikoak, (XVIII. mendea); oso handiak dira, 15-30 metro ingurukoak. /U.M.

ARETXABALETA

## Kanuto Deunaren eguna ospatuko dute bihar, laugarren aldiz

Kanuto Deunaren eguna egingo dute, bihar, zapatua, Aretxabaletan. Laugarren aldiz antolatu dute aurten, eta urtetik urtera egitarau dotoreagoa kaleratzen dute. Goiz partean kalejira egingo dute Kanutorekin, eta bolatokira joango dira bolo txapelketa jokatzera. Babarrun-jana egongo da eguerdian 150 lagunendako; eta ilunkaran, gaitariekin kalejira eta malabareekin egindako ikuskizuna izango dituzte. Jaiari bukaera emateko, 22:30ean, Karlote y los 3 del Patibulo taldearen kontzertua egongo da. /M.A.

ARAMAIO

## Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa

Bihar jokatuko dute Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa. Tartean bi aramaioarrek parte hartuko dute: Iker Agirrek eta Andere Arriolabengoak. Berez, bigarren horrek bakarrik parte hartu behar zuen, Agirreren txanda joan den astean izan zen-eta. Baina, Iker Agirre gaixotu egin zen, eta ezin izan zuen txapelketa jokatu. Hala, bihar, biek jardungo dute Agurainen. 20:30ean hasiko da saioa, erakusketa aretoan. Hurrengo kanporaketa Aramaion jokatuko dute, martxoaren 27an. /U.M.

ESKORIATZA

## Bizibide, hutsik dauden herriko etxeak kudeatzeko programa abian

Eskoriatzako Udalak pertsona bat kontratatu du. Bere egitekoa izango da herriko etxebizitza hutsei buruzko ikerketa egin eta jabeei Bizigune programaren abantailen berri ematea.

Bizigune programa Eusko Jaurlaritzak jarri zuen abian, gure herrietan hutsik dauden etxeei erabilgarritasuna emateko. Horregatik, hutsik dagoen etxebizitza baten jabe direnentzako programa interesgarria izan daiteke. Udaletxean eskura daiteke Biziguneri buruzko informazioa. /Z.V.M.

OÑATI

## Mendi Astea egingo dute datorren astean, Aloña Mendik antolatuta

Aloña Mendiko mendi sailak antolatu du datorren martxoaren 15etik 21era bitartean egingo den Mendi Astea.

Aste guztirako ekitaldiak antolatu ditu, eta izen handiko mendizaleek hartuko dute parte; tartean, Alberto Iñurrategi aretxabaletarrak eta Eneko eta Iker Pou anaia gasteiztarrek. Hitzaldiak, argazkiak eta ikastaroak egingo dira.

Astelehenean, esaterako, Asier Arantzabal eta Mila Gallastegik *Nepal: Katmandú.Solo-Khumbu* ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute. Nepaleko hiriburua, Everest eta sherpen eskualdea erakutsiko dituzte, beste hainbat toki, paisaia eta ohiturarekin batera. Martitzenean, martxoaren 16an, Eneko eta Iker Pou anaiak izango dira kultura etxean. Kontinente bakoitzeko hormarik gogorrenak eskalatzeko proiektua dute gazte hauek, eta horren harira, Yosemiten dagoen Kapitainaren eta Naranjoren igoerak erakutsiko dituzte.

**IÑURRATEGI ETA VIEIRA**

Eguaztenean, *Hire Himalaya* aurkeztuko du Alberto Iñurrategik, anaia Felixi egindako omenaldia. Eta eguenean, Alaskan eta Patagonian egindako eskaladen berri emango dute Carlos Vieira oñatiarrak eta Mikel Saez de Urabainek.

Nepaleko ikus-entzunezkoa Santa Anan izango da, 19:30ean, eta gainontzekoak, ordu berean, kultura etxean. San Joseko zubian, berriz, ikastaro-irteera bat egingo dute Pirinioetara, elurretara./O.E.

**Zertzelada**

**Punta-puntako mendizaleak eta eskalatzaileak izango dira; tartean, Alberto Iñurrategi eta Eneko eta Iker Pou**

BERGARA

## Mizpirualde egoitzan modulu psikogeriatrikoa jarriko dute abian

Mizpirualde zaharren egoitzan modulu psikogeriatrikoa jarriko dute abian aurten. Egoiliarrek behar duten arreta psikologikoa bultzatzea da aipatutako moduluaren helburua. Bertan, mendekotasuna duten 20 laguni arreta berezia eskainiko diete.

Mizpirualden 115 plaza daude, eta 113 egoiliar daude gaur egun. Horietatik, 85ek mendekotasun maila handia daukate. Mendekotasunaren atzean, gehienetan, dementzia kasuak daude; alzheimer gaixoen kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan.

Modulu berria uda aurretik zabaltzea espero dute, egoitzako lehen solairuan. /E.M.



ARTXIBOA

**Antzuolako, Elgetako eta Bergarako udalek gestionatzen dute egoitza.**

ELGETA

## Behin-behineko haurtzaindegia irekiko dute irailean Herri Eskolan

Udalak akordioa sinatuko du Haurreskolak partzuergoarekin. Akordio horrekin, datorren irailetik aurrera herrian 0 eta 2 urte arteko umeendako haurtzaindegia izango da. Udalak haurtzaindegia Herri Eskolan ipintzeko asmoa zuen, eta hala izango da oraingoz. Baina partzuergotik jarritako baldintza da haurtzaindegiak sarrera independentea izatea. Beraz, irailean, Herri Eskolan kokatuko dute, baina hiru urteren buruan egoitza finkoa Torrealdean jartzea zehaztu dute. /I.A.

GATZAGA

## Herriko guraso elkarteak eski irteera antolatu du Nafarroa aldera

Gatzagako guraso elkarteak (GUREL) asteburuko irteera antolatu du Nafarroa aldera, Urzainkira, hain zuzen ere. Gaur egubakoitza irtengo dira, 17:00etan, herritik. Hogeita zazpi lagunek eman dute izena, eta guztiek autoz egingo dute bidaia. Animatu direnek eskiatzeko aprobetxatuko dute bi eguneko irteera, eta horretarako Arette aldera joango dira. Irteeran parte hartuko duten 9 urte baino gutxiagoko gaztetxoak eskiatu ordez leretan ibiliko dira. /Z.V.M.

Maddi Garmendia aretxabaletarrak 17 urte daramatza Haitiko uhartean bizi izaten, Karibean. Irakaslea da, eta aste honetan hasi da berriro eskolak ematen. Herriaren ezegonkortasunak luze iraungo duen beldur da.

OIHANA ELORZA


MARGA GARMENDIA

# *Maddi Garmendia*

IRAKASLEA

# "Arma asko daude Haitin, eta herrian dagoen segurtasun faltak luze iraungo du"

GOBERNUA
**"Gizartearen ordezkariek osatuko dute behin-behineko gobernua. Hurrengo hauteskundeak egin arte"**

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK
**"Herrialde horren influentzia nabarmena da, baina min egiten dio errefuxiatuak txalupan Floridara joatea"**

**Bueltatu zarete eguneroko bizimodura?**

Pasa den asteburua iritsi arte, bazirudien egoera konpontzen ari zela, pixkanaka. Elikagaiak heltzen hasi ziren, zaborra biltzen duen kamioia ere tarteka pasatzen hasi zen... Kaleak beste itxura bat hartzen hasi ziren, poliki-poliki, eta egoera normalizatzen hasi zela zirudien.

Domekan, ordea, Aristide gobernutik alde egin zuela ospatzen zuen jendearen manifestazio erraldoia egin zen. Haien arabera, milioi bat lagunek hartu zuten parte. Ameriketako Estatu Batuek eta Frantziako indar polizialek babestuta egin zen. Baina manifestazioa bukatzear zegoela, Aristideren aldekoak tiroka hasi ziren, eta sei lagun hil zituzten, tartean Antena 3 telebista kateko kazetaria.

Manifestazio hartan parte hartu zutenek babestuta zeudela uste zuten, baina ikusi dute indar polizialek lagundu baino ez zietela egin, eta izugarrizko atsekabea dute.

**Dena dela, aurretik ere egin dute kazetarien aurka, ezta?**

Bai. Kazetariak mehatxatu dituzten lehenengoetakoak izan dira, kanpaina oso gertutik jarraitzen zuten-eta.

Baina bestalde, Aristide presidentearen aldeko bandak kontrolik gabe dabiltza; gainera, armak dituzte. Anarkia totala da. Oposizioan daudenen artean, armak dituen talde bat ere badago. Hauek esan zuten nazioarteko laguntza heltzen zen momentuan armak utziko zituztela, baina manifestazioan zer gertatu zen ikusi eta gero, babesik gabe daudela esan dute, eta ez dituztela armak utziko.

**Eta zein egoeratan zaudete orain?**

Ni neu hiriburuan bizi naiz, Port-au-Princen, eta aste honetan, astelehenean bueltatu gara eskolara. Inauterietako oporretan egon gara orain arte, eta bi aste egin ditugu etxean. Etxe barruan, gainera. Janaria erosteko ere, kontu handiz ibili behar izan dugu, ez zegoelako inongo babesik. Hiriburuaren beheko aldeko denda guztietan sartu dira. Portuan zeuden kontainerrak apurtu egin dituzte, postetxea ere bai... Baita irrati estazio bat eta kable bidez emititzen duen Haitiko telebista enpresa garrantzitsuena ere. Gu lanera joaten ausartu garen lehenak izan gara, pentsa.

**Joan den otsailaren 5ean okertu zen egoera, ezta?**

Ez, berez, abenduaren hasieran hasi ziren gauzak okertzen eta protestak eta gainontzeko mugimenduak ikusten. Gero eta hildako gehiago zeuden, gero eta arazo gehiago. Eta egoera otsailaren 5ean lehertu zen, bai.

**Baina Arisitide amerikarren laguntzarekin jarri zen agintean, ezta?**

Bai, bai, horrela da. Denborarekin, ordea, bere benetako asmoak zeintzuk diren ikusi dira. Ez zen hasieran zirudien bezain ona. Salesianoa izan zen, eta gero, utzi egin zuen. Arrakasta handia izan zuen, baina gauzak asko aldatu dira.

**Eta nola dago orain herria?**

Orain, bi urte iraungo duen behin-behineko gobernua eratzen ari dira. Presidente berria Haitiko lehen epailea izango da. Eta gobernua osatuko duten ministroak eta bestelako arduradunak gizarteko ordezkarien artean hautatuko dituzte. Gobernu berriak, esan bezala, bi urte iraungo du, hurrengo hauteskundeak egin arte, hain zuzen ere.

**Eta zer moduz dago ekonomia?**

Banketxeak ireki dituzte. Sekulako ilarak egin dira, baina jendeak hartu ahal izan du dirua. Hala ere, prezioek egundoko igoera izan dute. Oso garesti dago guztia. Gauza asko apurtu eta txikitu egin dituzte, eta dagoen gutxia oso garesti dago. Gainera, dena normalizatu arte, ez dira ezer inportatzen hasiko, beraz...

Beti egon da kanpoko laguntza, Haitik gehiago inportatu du esportatu baino. Jendeak dirulaguntza ere jasotzen du, batez ere kanpoan bizi diren senideek bidalita. Gainontzean, nekazaritzatik bizi da jende asko. Lantegi batzuk ere badaude, baina izugarrizko langabezia dago.

**Eta turismoa?**

Turismoa duela urte asko desagertu zen. Karibean konpetentzia handia dago, eta Haitin ez dago turistak behar duen erosotasuna eskaintzeko azpiegiturarik. Berez, oso herrialde polita da, baina dena egiteko dago oraindik. Lehen, turista asko etortzen ziren, baina politika arazoak direla medio, beste norabait doa turismo gehiena orain.

**AEBek diplomazia gaizki darabiltela irakurri dut nonbait.**

Ameriketako Estatu Batuetatik oso gertu bizi gara, eta haien influentzia oso nabarmena da. Baina Floridako kostara errefuxiatu asko joaten dira txalupetan, eta gai horrek burukomin handiak ematen dizkio hango administrazioari.

**Zerk eraman zintuen Haitira?**

Hemengo mutil batekin ezkondu nintzen, duela 17 urte, eta harrezkero, hementxe bizi naiz. Irakaslea naiz, eta Port-au-Princen dagoen frantses institutuan ematen ditut eskolak. Gaztelania irakasten dut. Gaztetan, Bergaran egin nituen ikasketak, Mariaren Lagundian. Orain, ni naiz irakaslea, baina ez dut uste lehengo moja haiek bezalakoa naizenik. (Barre).

Bestetik, hemengo unibertsitatean ere egiten dut lan. Fonetika eta Itzulpengintza irakasle naiz. Azken mugimendu politiko honek eragin zuzena izan du unibertsitatean, eta dagoeneko hiru hilabete daramatzat han lanik egin gabe.

**Sarri etortzen zara Aretxabaletara?**

Bai, bai, urtero joaten gara. Hamar hilabete egiten ditut hemen, eta beste bi, uztaila eta abuztua, Aretxabaletan. 15 urteko semea daukagu, Mikel. Hark ere ederki pasatzen du han, baina bera hemengoa da, Haitikoa. Ni, ordea, hangoa naiz, eta niretzat bereziagoak izaten dira han pasatzen ditugun oporrak. Urtetik urtera gauzak nola aldatu diren ikusten dut, familiarekin egon, kaleetan zehar paseatu eta bestelakoak egiten ditut.

Hala ere, satelite bidezko telebista kate asko hartzen ditugu hemen, eta Aretxabaletako bertako notiziak ez izan arren, ingurukoak heltzen dira, eta denak jarraitzen ditut.

**Eta Haitin topatzen ez duzun zer eramaten duzu?**

Han oso ondo jaten da, hori denok dakigu ondo. Baina baita hemen ere. Jaki goxoak daude, eta bertakoek janariak ondo prestatzen dituzte. Baina arropa, oinetakoak eta erosoak zaizkizun produktuak sumatzen ditut faltan. Hemen ere badago arropa, noski, baina amerikanoa da, eta ez da hangoa bezain erosoa. Eta hemengoa garestiagoa da. Gainera, urte osoan antzerako arropa saltzen dute hemen. Beharra edukiz gero, Miamira joaten da jendea, baina nik ez dut atsegin. Merkataritza-gune erraldoi bat baino ez da Miami, ez zait batere gustatzen.

**Udan zaudete orain?**

Ez, orain lehortearen sasoian gaude. Eguraldi zoragarria egiten du, baina euria egitea komeni da. Uraren banaketa ez da toki guzietara heltzen. Ni bizi naizen tokian, esaterako, ez dago ura garraiatzen duen hodirik. Euriaren ura biltzen dugu zisterna handi batzuetan, eta hori erabiltzen dugu, baina hori ere gutxitu egiten da. Aste honetan lortu dugu kamioia, baina beste batzuk okerrago egongo dira.

**Zer gertatuko da hemendik aurrera, zure ustez?**

Ez dut uste egoera laster konponduko denik. Poliki-poliki herriak eguneroko itxura hartuko du, baina arma asko daude, eta herrian dagoen segurtasun faltak luze iraungo du. Arma asko banatu dituzte, eta nahiz eta mila kanpaina egin, alferrik da, jendeak ez ditu itzuliko.

## Zabalik



JUN LUIS
AZKARATE

### *Manriqueren uhartea*

**Elurtetik ihesean Lanzaroten oporraldi labur batez disfrutatzeko aukera izan dut eta handik idazten dizuet lerro hauek, guardasolpean.**

**Paisaiarekin batera, Lanzarotetik gehien harritzen gaituena zera da: nola pertsona bakar batek irla osoari bertako kulturan sustraitutako itxura uniforme bat —paisaia eta artea, natura eta arkitektura bat eginez— eman zion. Gaur egun Lanzarote leku inbidiagarria izatea, turismoak alferrik galdutako beste leku askorekin konparatzen badugu, batik bat, Cesar Manriqueri (1919-92) eskertu behar zaio. Artista eta bisionarioaz gain, ekologista ekintzailea izan zen eta bere jaioterriko uharte kuttunean Turismo Sostengarriaren eredua ezartzea lortu zuen. Eredu hori, neurri handi batean behintzat, oraindik indarrean mantentzen da, nahiz eta uhartea gozokia izan interes turistiko zein inmobiliarioentzat.**

**Manriqueri esker, adibidez, harri bolkanikoak eraikin, plaza eta ibilaldi askotan eraikuntza-gaia bezala erabiltzen dira, etxe guztiek asko jota hiru solairu dituzte, ez dago publizitate hesirik eta ez da inon luxuzko txaletik ikusten. Honez gain, bere kemenari esker, Timanfaya (irlako eremu bolkaniko nagusia) Natur Parkea da eta irla osoa Biosferako Erreserba dugu.**

**Gune turistiko guztiak Cesar Manriquek berak proiektatu eta diseinatu zituen eta emaitza, alde batera, xumea eta ikusgarria da, bertako herri-kulturatik edan eta paisaiaren ikusgarritasuna aprobetxatzen baitu.**

**Datozen hamarkadetan, Altxorraren Uharteak Manriquek amestu eta birsortu egin zuen paradisua izaten jarraituko al du? Hala bedi.**

## Gutunak

### Espainiari ez!

Euskal Herriari isolamendua eta bizi osorako kartzela zigorra ezarri zioten jaio zenetik. Duela 25 urte demokraziaren gezurra bizitzera kondenatu gintuzten, geroztik 4.200 euskal herritar kartzelaratu dituzte. Herri honen izatea onartzen ez dutela islatzen duen adibide bat besterik ez da. Azken 25 urteotan 5.300 euskal herritar torturatuak izan dira, 18.000 atxilotuak, eta errepresio polizialek 3.093 zauritu eta 339 lagun hil dituzte.

Euskal Herrian 700 preso politiko eta 2.000 iheslari ditugu gaur egun. Espainiak herri hau zigortzen jarraitzen du, eta jarraituko du. Herri mugimendua zapalduz, eskubideak zanpatuz… indarkeria ankerrenaz, Euskal Herria itotzeko saiakeratan behin eta berriro ukatuko du gure izana. Bagara ala ez gara?

Gure sustraiek gogor diraute egunerokotasunean, eta euskal herritar aitortzen gara. Euskal Herria errespeta dezatela, eta utz gaitzatela bakean! Hemendik, zinez diogu, zapaltzen gaituen estatu honi uko egiten diogula. Espainiari ez!

ARRASATEKO ASKATASUNA
Arrasate

### Elgetako semaforoak

Badira hilabete batzuk Elgetan semaforoak jarri zirela, eta, egia esan, ondorioak kezkagarriak izan dira eta dira; trafikoa antolatu eta arindu beharrean, askotan trafiko horri trabak jartzen dizkiote, esaterako:

- Autoek bestelako bideak hartzen dituzte, Salbador kaleko kale ostea edo Lasao kalea, eta hauek seinalatu gabe daude.

- Eibartik datorren bidea karril batekoa izanik, semaforoko anbar-argiak karril bi sortzen ditu; batetik argi gorria dela eta geldirik daudenak Bergara eta Arrasaterantz joateko eta Elorriora doazenak bestetik, geldirik daudenak aurreratzen dituztelako.

- Gauza bera Arrasatetik etorriz gero, Bergara alderako bidea anbar-argian badago eta arku aldera gorrian.

- Bestelakoa da semaforoak gorriz pasatzeko moda berria.

- Helduak oinezko direnean jaramonik ez semaforoei, eta, jakina, umeak zer ikusi huraxe ikasi.

Aurrekoak kontuan izanda, behar-beharrezkoa da semaforoek ekarritako anabasa eta arriskuak konpontzea. Teknikarien iritziak beharrezkoak badira, ez dira gutxiago erabiltzaileen iritziak (gidari eta oinezko); beraz, Udalak guztien iritziak izan beharko lituzke kontuan. Hezitzaileak lirateke beste irtenbide bat. Hezitzaileak ipini bide seinaleak eta semaforoak errespetatzen erakusteko eta, era berean, jarritako seinaleek eta semaforoek dakartzaten onurak azaltzeko. Gure asmo bakarra istripuak eta dagoen saltsa-maltsa ekiditea da. Elgeta Auzolanian taldearen eskaera Elgetako Udalean da irtenbideak aurkitu eta martxan jartzea berandu baino lehen.

ELGETA AUZOLANIAN
Elgeta

### Progren-ek kaltetuak

Zuengana zuzentzen naiz Progren eraikuntza enpresarekin gertatutakoa kontatzeko, eta aldi berean politikariei-edo lagundu gaitzaten edonori deia egiteko.

Legeak babes barik utzi gaitu, Arrasateko Udalak eta Progren eraikuntza enpresak Arrasate pasealekuko partzela bat urbanizatzea erabaki zutelako. Partzela horretan dagoen etxe baten jabeak gara eta hori plan urbanistikoaren barruan sartu dute. Konpentsazio Junta baten sartu gintuzten eta dirua agindu ziguten. Horren ordez, guk gure lurzoruaren zati bat laga genuen, han eskailera egin zezaten eta pabiloi bat eraikitzeko. Gaur egun dena urbanizatuta dago eta ez dugu inolako konpentsaziorik jaso. Lurzoru horretan estanko bat eta garaje bat zeuden. Lanak hasi zirenean, estankoa hustu egin zuten eta garajea erabili ezinean utzi zuten. Ordutik bost urte pasa dira eta oraindik ez dugu zentimorik jaso, ez kalteengatik ezta partzela horrengatik.

Halako bidegabekeriak egin ez ditzaten eta eraikuntza enpresek eta udalek halako delituak egiteko halako askatasuna izan ez dezaten deia egin gura dugu. Hori guztia epaitegietan tramitatu zen, baina babes barik geldítu ginen, Progren eraikuntza enpresa oso boteretsua delako. Ez dugu ulertzen zein trikimailu erabiltzen dituen guri, gehien kaltetu gaituenei, ez ordaintzeko, bereganatu duten partzela gurea baitzen, gure erabilpenerako. Udalak, bere aldetik, azkeneko batzarrean, Bruesi eskatu zion zor zizkion 50 milioi pezetak eta interesak ordaintzeko. Eta diru hori justu da guri zor diguten a.

Jende nagusia gara, alargunak, eta babes barik egon gara eta gaude putre horien aurrean. Txarrena da zazpi urte luzez gure kontu barre egiten egon direla, promesak eginez baina guri lapurreta egin digutela trukean ezer eman barik.

Gainontzeko bizilagunak karga horiengandik aske egon dira, ez dute mafia horrekin harremanik eduki behar izan.

ARANTZA EZKURRA LARRAÑAGA
Arrasate

**Hauteskundeak GOIENKARIAn**

Hauteskundeen gaineko informazio guztia jasoko duzue *Asteleheneko Goienkaria*-n. Ohiko egunkari saltokietan egongo da eskuragai 0,8 euroren truke, harpidedun ez zaretenondako.

GOIENKARIA

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.




# Goiena Telebista zuntz optikoan

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren eta Euskaltelen artean sinatu berri den hitzaremenari esker,
**Euskalteleko bezeroa bazara, aurrerantzean, Goiena Telebista kablez ere ikus dezakezu**

S11 katean (231.25 MHz)

Goitb
Goiena Telebista

## Podiuma

# Iñigo Roldan | MENDIKO BIZIKLETA |

OIHANA ELORZA

**Iñigo Roldan aretxabaletarrak eta beste hiru lagunek Debagoieneko mendiko bizikleta talde bakarra sortu dute. Duela astebete aurkeztu zen, Gatzagan, Ederra Taberna taldea. Euskadiko Openean hartuko du parte.**



GOIENKARIA

Iñigo Roldan, eskuinetik lehen txirrindularia, taldekideekin.

**Nortzuek izan duzue Debagoieneko lehen mendiko bizikleta taldea sortzeko ideia?**

Orain arte gure kontura ibili gara mendiko lasterketetan parte hartzen, eta azkenean, taldea osatzea erabaki dugu. Bestalde, taldeak ez du inongo helbururik. Badakigu mendiko bizikletan ibiltzeko zaletasun handia dagoela, eta lasterketetara denok batera joateko sortu dugu taldea.

**Eta nola egin duzue?**

Ederra tabernakoa eta biok askotan ibili gara mendiko bizikletan, eta taldea berak babestuko zigula esan zigun.

Lasterketetan parte hartzeko lizentzia behar duzu, eta lizentzia hori klub baten bitartez lor dezakezu. Guk gure kontura ezin genuen talderik sortu. Lizentzia ateratzeko klub batean sartu behar duzu, derrigorrez. Eta guk erabaki genuen Ederra taberna taldea Dorletako Ama txirrindulari klubaren barruan sartzea.

**Zergatik talde horretan eta ez beste batean?**

Debagoienean bertan badaude beste klub batzuk, Bergarakoa eta Oñatikoa, esaterako, baina gu lotuago egon gara beti Leintz Gatzagako taldearekin, Dorletako Ama taldearekin, eta horregatik hartu dugu erabaki hori.

**Nortzuek osatzen duzue taldea?**

Lau lagunek. Igor Lazkano eskoriatzarra, Felix Zugasti eta Zigor Uren arrasatearrak eta laurok.

Hemen, mendiko bizikletan ibiltzeko zaletasun izugarria dago, baina ez lasterketetan parte hartzeko. Guk lasterketetara joaten ginenen artean atera dugu taldea, eta laurok bakarrik gaude.

**Zergatik hain gutxi, zaletasuna handia bada?**

Batetik, ez da oso ezaguna. Egun, profesional mailan dagoen bakarra Iñaki Lejarreta berriztarra da. Guk ere lan egiten dugu. Bestetik, hemen inguruan, ez da inoiz jende askorik ibili mendiko bizikletan. Errepidean akaso, bai, baina mendian ez.

Euskal Herrian ez da horrenbeste diru sartu kirol honetan. Espainiako Openean, esaterako, hortik bizi den jendea badagoela ikusten duzu, baina hemen ez, oraindik behintzat.

**Non egiten dituzue entrenamenduak?**

Gehienbat errepidean. Astean behin mendian ibiltzen gara, baina bestela, errepidean. Entrenamendu fisikoa egiteko errepidea da onena. Mendian teknika zaintzen dugu, esaterako. Hala ere, uda aldera, lokatza gutxiago izaten da mendian, eta sarriago ibiltzen gara mendiko bizikletan.

**Zein lasterketetan hartu duzue parte orain arte, eta ze egutegi duzue hemendik aurrera?**

Euskadiko Openean urtero egiten da, eta hor hartuko dugu parte, besteak beste. Aurten, 12 proba dira, lehenengoa domekan bertan, Nafarroako Izkue herrian.

Eta bigarren proba Arrasaten egingo da martxoaren 28an. Eroskin abiatuko da, eta zortzi kilometroko zirkuitua prestatuko dugu, handik Kanpanzar aldera. Hainbat kategoria izango dira, eta horien arabera, lau, hiru edo bi bueltа emango zaio zortzi kilometroko zirkuituari. Gainontzean, Espainiako lasterketetara ere joan izan gara, Kantabria, Aragoi, Burgos...

**Zenbat parte-hartzaile ibiliko zarete, gutxi gorabehera?**

Kategoria guztiak kontuan izanda, 150-200 inguru. Denok batera irtengo gara, baina batzuek bueltа gutxiago eman beharko dituzte.

**Zu zeu errepideko bizikletan ere ibilia zara, ezta?**

Bai, bai, 20 urte baino gehiago daramatzat bizikletan ibiltzen. Lehenengo, errepidekoan, eta gero, mendiko bizikletan hasi nintzen, popularragoa delako. Ezberdina da.

**Udako oporrak ere bizikletarekin antolatzen dituzu?**

Egin izan ditut ibilbide batzuk, baina azken bi, hiru urteotan, beste era bateko planak egiten ditut abuztuko oporretarako.

> “Mendiko bizikletan ibiltzeko zaletasun handia dago, baina ez lasterketetan jarduteko”

> “Martxoaren 28an, Arrasaten egingo da Euskadiko Openaren bigarren proba”

## Kirolabur



### FUTBOLA/DEBAGOIENA

Debagoieneko lagun talde batzuk —Oñatiko eta Arrasateko batzuk, esaterako— Lyonera joan ziren, martitzenean, Realak Lyonen aurka jokatu zuen partidua ikustera, Europako Txapeldunen Ligako final-zortzirenak. Frantziako futbol zelaia leporaino bete zen norgehiagoka ikusteko, eta hangoek partidua girotu zuten. Realzaleen artean, berriz, uste baino debagoiendar gutxiago zeuden, eta zaleak, oro har, nahiko goibel egon ziren.

### TRIALSINA/ARETXABALETA

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azkenaurreko proba jokatuko da, domekan, Aretxabaletan. Guztira, bost kategoria edo maila egongo dira, eta kanpotik etorriko diren lehiakideez gain, gura duten guztiek har dezakete parte. Hala ere, izena eman beharko dute lehenbizi. Santutxu eta kanposantu bitartean egingo da proba. Infantil mailan, Markel Uriarte eta Unai Mendikutek hartuko dute parte. Bi horiek sailkapeneko lehenengo eta bigarren postuetan daude. *Superclass* proban, Iker Lezeta eta Benito Ros munduko txapeldun izandakoek ere hartu dute parte.

### PAINT-BALLA/BERGARA

Bergarako paint-ball taldea Santanderrera joango da bihar, zapatua, txapelketa batean parte hartzera. Paintballa berria da oraindik, eta tarteka, txapelketak antolatzen dituzte, kirola ezagutarazteko. Hala ere, Galizia, Madrilen eta Katalunian ligak daude, eta Euskal Herrian ere liga bat sortzeko ideia badago. Bergarakoa Degaboieneko talde bakarra da.

### MENDIA/ARETXABALETA

Eskola arteko XVII. mendi lehiaketa egingo dute domeka goizean, Aretxabaletan, eta Deba arroko gaztetxo asko batuko dira mendi ibilaldia egiteko. 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek hartuko dute parte. Mendi ibilaldia neurtua izango da. Nagusienek 13 kilometroko ibilbidea egingo dute, eta gaztetxoek, bederatzikoa. Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatu du, Zaraia Mendizale Elkartearekin batera.

### ATLETISMOA/DEBAGOIENA

Antxintxika taldeak Euskadiko Selekzioarekin hartuko du parte datorren asteburuan, Gironan. Antxintxika atletismo taldeko hiru kide lehiatuko dira: Zuhaitz Ezpeleta, senior mailan, eta Aitor Arranz eta Eduardo Jimenez, 23 urte azpikoen mailan. Oñatin egingo den duatloian ere hartu du parte Antxintxika taldeak.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea

Adriano VI, 17
GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



# URREZKO ZERBITZUA




*Zure Pentsioarekin, urrutirago.*

Pentsioa **kutxa**n helbideratuz gero, **Urrezko Zerbitzua**ren onura berezi ugari izango dituzu eskura, zuretzat propio.

Hala nola Urrezko Bidaien programako **bainuetxeetako egonaldiak, txangoak eta bidaia subentzionatuak** egin ahal izatea, edo **Talasoterapia**ko programak eta **Etxeko Telelaguntza**ko zerbitzua oso baldintza onuragarritan kontratatzea.

Eta, orain, gainera, **Urrezko Txartel** berriaren aukera apartaz baliaturik, **Urrezko Ikasgeletako** kultur eta hezkuntza-jarduera subentzionatuetan esku hartu ahal izango baituzu, zinema, ikuskizun, museoetan...deskontuak lortu, eta etengabe hazten ari diren beste hainbat abantailaz gozatu.

**ORAINTXE BERTAN ESKATU, DOAN, ETA GOZA ITZAZU PENTSIOA KUTXAN KOBRATZEAK DAKARZKIZUN ONURAK.**




URREZKO
ZERBITZUA

Informa zaitez eta eskatu txartela **zeure ohiko bulegoan, Telekutxan 901 333 555 edo www.kutxa.net** helbidean.

www.kutxa.net

kutxa
Zure diruaren balio erantsia.

# Gu, tabernariok, bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun. Eta zu?



**ELISEA GUTIERREZ** |

TOKI ALAI TABERNA, ESKORIATZA

"Nik neuk ez dakit euskaraz irakurtzen, baina argazkiei begira gelditzen naiz. Gainera, bezeroek prentsak dakartzan albisteak komentatzen dituzte, eta sukaldetik irteten naizean kontatzen dizkidate".



**XABIER IBARZABAL** |

IZARRAITZ TABERNA, OÑATI

"Egia esan, nik neuk ez dut asti handirik izaten egunkaria irakurtzeko. Asko erosten ditugu, eta barran egoten dira, bezeroaren esku. Jendeak, hala ere, azkar irakurtzen ditu bertako noticiak, gustuko ditu".



**JESUS IBABE** |

MONTE TABERNA, ARRASATE

"Argazkiek harritu egin naute. Ez nuen espero ikusi ditudan argazkiak jasoko zituenik. Nabari da agentziekin ere lana egiten dutela, lana biribiltzen dutela. Denetariko notiziak jasotzen ditu, euskaraz".



**MAIER IRAZABAL** |

PATXI TABERNA, ELGETA

"Gainontzeko egunkarietan ez bezala, herrietako eta, batez ere, herri txikietako notiziek eta gertaerek tokia izaten dute hemen. Herri txikien presentzia ikusten da, eta hori oso garrantzitsua da".



**MIKEL LARRAÑAGA** |

KORTAZAR TABERNA, BERGARA

"Ondo iruditzen zaigu bertako eta inguruko notiziak jasotzea. Gainera, bertakook egiten dugun aldizkari baten. Pozik hartu dugun egitasmoa da, eta itxura polita dauka. Irakurtzen dugu, gustatzen zaigu".



**DUNIXI OLABARRIA** |

POL-POL TABERNA, BERGARA

"Kiroletako egunkari asko erosten ditugu astelehenetan bestela ere, baina honek ez dakar kirola bakarrik, bertako notiziak jasotzen ditu, eta euskaraz, gainera. Proiektu polita iruditzen zait".



**ESPE ELIZONDO** |

GURIA TABERNA, OÑATI

"Guk geuk pozik irakurtzen dugu, bai egubakoitzekoa eta baita astelehenetakoa ere. Eta tabernara datozenen artean ere oso harrera ona izan duela konturatu gara, jende askok irakurtzen du".



**ISIDOR SALABERRIA** |

BIONA TABERNA, ARRASATE

"Nik neuk ez daukat egunkaria irakurtzeko ohiturarik, baina gainetik bada ere, ikusten ditut, bai. Hala ere, *Asteleheneko Goienkaria* tabernan jende askok irakurtzen duela konturatu naiz".



**SALVA RODRIGUEZ** |

ARLUTZ TABERNA, ARETXABALETA

"Egubakoitzetan banatzen den GOIENKARIA baino gehiago gustatzen zait *Asteleheneko Goienkaria*. Batez ere, kiroleko notizia gehiago dakartzalako. Tabernan ere askok irakurtzen dutela konturatu naiz".



**JOKIN FERNANDEZ** |

LARREA TABERNA, ANTZUOLA

"Egitasmoa oso positiboa da. Ondo ikusten dut. Asteleheneko hutsunea ondo bete duela uste dut. Lehen ez zegoen aukerarik astelehenetan euskarazko prentsarik irakurtzeko, eta orain bai. Pozik hartzen dut".



**RAFA LUENGO** |

ITZALA TABERNA, ARRASATE

"Asteburuko gertaerak ekartzen ditu *Asteleheneko Goienkaria*-k, eta oso ondo dago. Egubakoitzekoan,zaharkituta gelditzen dira notizia hauek. Gustatu zaigu egitasmo berria, itxura polita dauka".



**JESUS ARANTZABAL** |

MAXIM'S TABERNA, BERGARA

"Guk ez dugu inoiz euskaraz irakurtzeko ohiturarik izan, eta oraindik ere kosta egiten zait dena lehenengoan ulertzea, baina hemengo aldizkariak gustura irakurtzen ditut, bertako notiziak dituzte-eta".



**OSCAR GONZALEZ** |

EGON KAFETEGIA, BERGARA

"Egubakoitzekoaren aldean ezberdina da. Honek notizia freskoak dakartza, bestean pixka bat zaharkituta gelditzen dira-eta. Jendeak oraindik ez du irakurtzeko ohiturarik hartu, baina ohituko da".



**ISIDORO QUINTANA** |

ONGI ETORRI TABERNA, ANTZUOLA

"Jendeak asko irakurtzen du tabernan. Duela egun batzuk, bizargina etorri zen, eta elkarrekin aritu ginen han jasotako notizien inguruan hitz egiten. Hemengo notiziak dira, eta garrantzitsuenak dira".



**ANTONIO MURILLO** |

KAJOI TABERNA, ARRASATE

"Egunkaria kaleratzea izango litzateke egokiena, baina hori lortu arte, oso ondo ikusten dut egubakoitzekoaz gain astelehenetan ere bertako notiziak dakarren aldizkaria ateratzea. Euskaraz, jakina".

**Astekoak**




## Hauteskunde biharamuna

Hauteskundeen atarian gaude. Domekan izango dira **Espainiako Gorteetarako** hauteskundeak. Egunotan, harantz eta honantz ibili dira hautagaiak, baita geurean ere, boto eske. Gaur egingo dituzte azken ekitaldiak, eta biharko hausnarketa egunaren ostean, domekan izango dira bozketak.

Hedabide guztiek —telebistak, irratiak, prentsa idatziak eta Internetek— jarraipen zabala egingo diete hauteskundeei, eguneko gorabeheren eta emaitzen berri emanez eta era guztietako iritzi eta balorazioak jasoz. Geurean ere, Debagoienean, bertako hedabideek luze eta zabal jorratuko dute hauteskundeek utzitakoa. **Goienak**, esaterako, inork baino lehenago emango du emaitzen berri, domeka gauean bertan: **Goiena Telebista**ren, **Arrasate Irratia**ren eta ***Goiena.net***-en bitartez. Eta, prentsa idatziari dagokionez, ***Asteleheneko Goienkaria***-k inork baino azkarrago emango ditu Debagoieneko emaitzak, eta hauteskundeek gurean emandakoa inork baino sakonago eskainiko du: emaitzez eta eguneko kontuez gain, hausnarketarako, konparaziorako, balorazioak egiteko... tartea eskainiko du. Sei orri eskainiko die *Asteleheneko Goienkaria*-k hauteskundeei, guztira 36 orriko egunkarian.

Hauteskundeetako emaitzak, gure ibarrean asteburuan gertatutako beste ekitaldiekin batera (kirolak, kultura, eta abar)... Hori guztia ohiko egunkari saltokietan eskuratu ahal izango duzue astelehen honetan: oraindik harpidetu ez zaretenok, eta bakarrik **0,8 euroren truke**..., inork baino merkeago!

**Hauteskundeetako informazio guztia 'Asteleheneko Goienkaria'-n, 0,8 euroren truke**

# Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko martxoaren 12a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 12tik 19ra






# NEKAZARITZA EKOLOGIKOA IKASGAI

### Hastapen ikastaroa egiten ari dira Eskoriatzan hamabost bat lagun

Nekazaritza ekologikoa sintesiz lortutako produktu kimikorik erabiltzen ez duen ekoizpen sistema alternatiboa da. Elikagai osasungarriak eta produktu kimiko sintetikorik gabekoak lortzeaz gain, naturaren prozesuak eta zikloak errespetatzen dituen nekazaritza mota da. Elikagai transgenikoak direla medio, nekazaritza ekologikoak gorakada handia izan du azken urteotan.

Eskoriatzan nekazaritza ekologikoaren hastapen ikastaroa egiten ari dira. Ikastaro horretan nekazaritza ekologikoa zer den ikasten dute, eta nekazaritza alternatibo horren arabera lurra nola lantzen den, zer produktu erabiltzen diren, zein ongarri bota behar den... irakasten diete Biolur elkartekoek. Hamabost bat lagun ari dira parte hartzen ikastaroan. /USOA AGIRRE/**17**





Euskal Herrian egiten diren azoketan geroz eta presentzia handiagoa dute produktu ekologikoek eta geroz eta baserri gehiagotan lantzen dira. Argazkietan, goitik behera, piperrak, berenjenak, kipulak eta letxugak.

# *Aktiba Txartela* EUSKADIKO KUTXA






Urteko kuota
**6€**
besterik ez

Eskatu **Aktiba txartela,** lasai-lasai ordaindu eta erabat kontrolatu asteko erosketak

## Abantaila bat
7 egun zure alde

*Abantaila nagusiak:*

- Zure gastuak erabat kontrolatuko dituzu, kontuan asteartero kargatuko dizkizugu eta
- Informazio xehatua jasoko duzu, asteroko labur-penean erosketa zordunketarekin lotu ahal izateko
- Sari seguruak arinago, Travel Puntuak jasoko baitituzu
  - Erosketa Aktiba txartelarekin ordaintzearren eta
  - Travel Programari atxikitako saltokietan erostearren
- Kutxazainetan kontuko saldoaren kontra dirua ateratzeko, telefono mugikorra kargatzeko, finantza-kontsultak egiteko eta abarretarako aukera izango duzu
- Internet bidezko banka (Caja Laboral Net) eta telefono bidezko banka (Telebanka) erabili ahal izango dituzu
- Lasaitasun handiagoa:
  - Istripu Asegurua kosturik gabe
  - Maulazko erabileraren kontrako Asegurua, txartela galdu edo lapurtuz gero
- 25 milioi saltoki eta 700.000 kutxazain baino gehiagotan erabil dezakezu mundu osoan

04-01-01ean indarrean egongo diren baldintzak



Informazio gehiagorako, Euskadiko Kutxaren sukurtsalak, 901 333 444 edo www.cajalaboral.com

*Zurekin elkarlanean* | CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

IKASTAROA/ NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

# Jaki naturalak zelan landu ikasgai

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN HASTAPEN IKASTAROA EMATEN ARI DA BIOLUR GIPUZKOA ESKORIATZAN, UDALAK ANTOLATUTA

USOA AGIRRE

**Nekazaritza ekologikoaren hastapen ikastaroa egiten ari dira Eskoriatzan. Hamabost bat lagun ari dira parte hartzen, eta nekazaritza ekologikoaren oinarrizko kontzeptuak ikasiko dituzte. Eskoriatzako Udalak antolatu du ikastaroa, Biolur eta Ekonekazaritzarekin lankidetzan.**

Biolur Gipuzkoa elkarteak hainbat herritan antolatzen ditu nekazaritza ekologikoaren hastapen ikastaroak. Oraingo honetan Eskoriatzan egin dute hitzordua. Eskoriatzako Udalak erretiratuei zuzendutako ikastaroa antolatzea pentsatu zuen hasiera batean, baina, gainerakoen interesa ikusita, nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa jende gehiagori zabaltzea pentsatu zuten. Hamabost bat lagunek eman dute izena ikastaroan, eta adin askotariko jendea dago. Martxoaren 2an hasi zen ikastaroa eta hil honen 16an emango zaio amaiera ikastaro teorikoari. Martxoaren 18an eta 23an, nekazaritza ekologikoa egiten duten bi baserritara egingo dituzte bisitak: Elgoibarko Txillarrera eta Antzuolako Lapatzara.

Hogeita bost orduko ikastaroa da, eta eskola teorikoak ematen dituzte. Peio Rubio Biolurko presidenteak zera esan digu: "25 orduan ez du praktika askorik egiteko denborarik ematen. Baina, ikastaroaren ondoren norbaitek baserriren baten praktikak egin nahi baditu, horretarako aukera ere ematen dugu. Hala ere, normalean ikastarora etortzen direnek beraien baratzean egiten dituzte praktikak".



USOA AGIRRE

Ikastaroa teorikoa da eta nekazaritza ekologikoaren oinarrizko ezaugarriak ikasten dituzte.

#### LURRA ZAINTZEKO IKASTAROA

Ikastaroko egun bakoitzean nekazaritza ekologikoarekin lotutako alderdi ezberdin bat azaltzen saiatzen dira Biolurkoak. Egun bakoitzean irakasle ezberdina izaten dute, gaiaren arabera. Orokorrean, ikastaroan jendeari erakusten diote zer den lurra, zelan ulertzen duten nekazaritza ekologikoan lurra eta zelan zaindu behar den lur hori. Rubiok dioenez, "lurra organismo bizia da, eta guk halaxe tratatu behar dugu. Organismo bizi horri jaten eman behar diogu, gero landareak ere hala erreakziona dezan".

Bestalde, arlo teknikoan lurra zelan landu, zer produktu erabili, zein ez erabili, zenbat ongarri bota, zelan preparatu ongarri hori, eta beste hainbat ezaugarri irakasten dituzte. Ilargiari ere garrantzi handia ematen diote nekazaritza ekologikoan. Rubiok zera adierazi digu: "Ilargiak zerikusi handia du landareekin, eta haren indarra aprobetxatu egiten dugu". Parte hartzen duen jende gehiena produktore txikia izaten da, eta Biolurkoek uste dute lau eskematxorekin nahikoa izaten dutela nekazaritza ekologikoa zertan den ikasteko, lehen ere nekazaritzan ibilitakoak dira-eta.

## Alternatiba ekologikoa

**Nekazaritza ekologikoak, ohiko nekazaritzak ez bezala, ez du erabiltzen ez ongarri kimikorik, ez pestizidarik, ez gainerako produktu kimikorik. Honela, landareen beraien ziklo biologiko naturalari eusten dio eta ez dio ingurumenari kalterik egiten. Ingurunea errespetatu eta kalitate oneko elikagaiak ekoiztea: bi oinarri horien gainean altxatzen da gaur egun nekazaritza ekologiko moduan ezagutzen duguna. Hori da, etengabe hedatuz, merkatu espezializatua abiarazi duen alternatiba.**

**Nekazaritza ekologikoa baserritarrentzat errentagarria da, eta osasun publikoarentzat ere onuragarria da. Horrez gain, ondorengo belaunaldientzat ondoriorik ez duen ustiapena da.**

**Nekazaritza ekologikoak, transgenikoak direla medio, gorakada handia izan du munduan azken urteotan. Espainiako Estatuan ere asko hazi da; datu ofizialen arabera, azken lau urteotan horrela landutako hektarea kopurua %30 handitu da, landutako 352.164 hektarearea iritsiz. Aldi berean, nekazaritza ekologikoaren produkzioa bikoiztu egin da.**

PEIO RUBIO / BIOLUR ELKARTEKO PRESIDENTEA

# *"Elikagai garbiak eskaintzen dizkiogu jendeari"*

**Duela hamahiru bat urte hasi zen Peio Rubio nekazaritza ekologikoa lantzen, Elgoibarko Txillarre baserrian. Biolurko presidentea da Peio. Hain zuzen ere, Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatzeko elkartea da Biolur.**

**Zein da Biolur-en lana?**

Elkarte bezala, gure lana da denon artean gauzak banatu eta elkarri laguntzea. Arazoren bat sortzen bazaigu, ikastaroak, irteerak eta horrelakoak antolatzen ditugu. Norbaitek baratzean arazoak baldin baditu, elkarte moduan laguntzen diogu. Baratzean erabili beharreko produktu naturalak ere denondako ekartzen ditugu. Azken baten, elkarte batek egiten duen lan bera egiten dugu.

**Nolako harrera dute nekazaritza ekologikoko produktuek?**

Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga eta biok duela 13 urte hasi ginen nekazaritza ekologikoa egiten. Orduan zoro hutsak ginela esaten ziguten; gaur egun, Udaletatik ere deitzen digute, ikastaroak emateko.

**Nekazaritza ekologikoa bestea baino hobea da?**

Bada, guk hala uste dugu, horregatik ari gara nekazaritza ekologikoa lantzen. Beti esaten dugu lortzen dugula produkzio txikiagoa eta beranduago. Baina produktu hauek jan egin behar dira, ez dira torlojuak, eta, azken baten, jaki garbiak eskaintzen dizkiogu jendeari. Kontsumitzailea geroz eta gehiago konturatzen ari da jaten duenak zerikusia duela gorputzarekin, gaixotasunekin eta norberaren osasunarekin.

**Nola bereiz daiteke barazki ekologiko bat ekologikoa ez den batetik?**

Kanpoaldetik, ezberdintasuna da gure produktuak zarpail xamarrak direla. Ez dute gainontzeko barazki gehienek edukitzen duten moduko distirarik. Txikiagoak ere izaten dira, baina produktu garbi eta naturalak dira.



Peio Rubio.

**Bizi daiteke nekazaritza ekologikoa eginez?**

Guk nekazaritza ekologikoa egiten dugu, eta hortik bizi gara. Gainontzeko nekazariek baino garestiago saltzen ditugu produktuak, uste dugulako kalitatezko jakiak saltzen ditugula. Geroz eta jende gehiago dago prest gure produktuak erosteko. Pixkanaka gora doa nekazaritza ekologikoaren salmenta. Etorriko da momentu bat produktu hauen kontsumoak goia joko duena. Horrek ere bere denbora behar du, baina bide horretan gaude. Geroz eta azoka gehiago antolatzen dira, supermerkatuetan ere produktu ekologiko gehiago ikusten dira... Guztiak du eragina.

# M-14

ESPAINIAKO
GORTEETARAKO
HAUTESKUNDEAK

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

Emaitzak • Eguneko gora beherak • Ordezkari politikoen iritziak • Analisi eta balorazioak • Debagoieneko datu guztiak

**EROSI astelehenean egunkari saltokietan edo egin zaitez HARPIDEDUN: 902 36 38 51**

**Goitb**
Goiena Telebista

Hauteskundeen gaineko saio berezia domekan 20:00etatik aurrera, zuzen-zuzenean • Analisia eta balorazioak • Iritziak

**Euskalteleko bezeroek S11 katean ere ikusi ahal izango duzue**

**Goiena.net**
Debagoieneko Interneteko ataria

Domekan, Debagoienerako datuak izan ahala sarean • Intzidentzia herriz herri

**www.goiena.net**

**Sustatu**

Internet bidez hauteskundeen jarraipena nola egin jakitek,o beharrezko guztia • Domeka gauean, EAEko eta Nafarroako emaitzak
Hauteskunde kalkulagailua weblogean: www.sustatu.com/hauteskundeak

**www.sustatu.com**

FM 107.7
**ARRASATE IRRATIA**

GOITBko domekako hauteskundeen gaineko saio berezia irrati bidez zuzenean jarraitzeko aukera
Astelehenean, saio berezia goizeko 09:30etik 11:00etara • Analisi eta balorazioak • Iritziak

**FM 107.7**

**Goiena**
Komunikazio Zerbitzuak

ARGITALPENA/ **IPUIN BILDUMA**

# Hala bazan... Debagoieneko plazan

IZEN HORI BERA DUEN IPUIN BILDUMA BANATUKO DU GOIENAK 'ASTELEHENEKO GOIENKARIA'-REN HARPIDEDUN DIRENEN ARTEAN

USOA AGIRRE

**Ibarrean jasotako lau ipuinez osatutako liburua argitaratu du Goienak. Datorren astetik aurrera, *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun direnen artean banatuko dute. Debagoieneko lau idazlek jaso edo egin dituzte ipuinak, eta lau ilustratzaileren laguntzaz osatu da bilduma.**

*Hala bazan... Debagoieneko plazan* izena du Goienak argitaratu duen ipuin liburuak. Hain zuzen ere, joan den eguaztenean Aramaion aurkeztu zuten bilduma Goienako ordezkariek eta idazleek beraiek. Debagoienean jasotako lau ipuinez osatuta dago liburua. Ipuin batzuk Euskal Herrian zehar ezagunak diren beste ipuin batzuen aldaerak dira; besteak, aldiz, erabat orijinalak. Aramaion, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin jasoak dira istorioak. Juan Martin Elexpururen *Juaniko Txistu*; Jerardo Elortzak idatzitako *Torreko zubixa*; Divina Arriolabengoak eta Arantza Ozaetak jasotako *Arrasateko dragoia* eta *Hontza zergatik bizi dan gabaz* dira ipuinen tituluak. Arriolabengoak eta Ozaetak elkarrekin egin zuten lana, eta Aramaioko Udalak emandako beka bati esker jaso zituzten bi ipuin horiek.

Baina, hitzekin batera, irudiek ere garrantzi handia izaten dute ipuinetan. *Hala bazan... Debagoieneko plazan* liburuko marrazkiak lau ilustratzailek egin dituzte: *Juaniko Txistu* Jabier Erostarberen marrazkiez osatu da; *Torreko zubixa* ipuinaren marrazkiak Jokin Mitxelenak egin ditu; *Arrasateko dragoia* istorioa Iñigo Sarasolak jantzi du irudiz; eta *Hontza zergatik bizi dan gabaz* ipuinaren marrazkiak Lorena Martinez Oronozek egin ditu.

**HIRU AZPIEUSKALKITAN**

Aipatzekoa da, bestalde, hiru edizio egingo direla. Hain zuzen ere, ibarreko hiru azpieuskalkitan argitaratuko da liburua, eta nork bere azpieuskalkian jasotzeko aukera izango du.

*Hala bazan... Debagoieneko plazan* ipuinen liburua *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedunen artean banatuko du Goienak. Datorren astean hasiko dira ipuin bilduma banatzen harpidedun bakoitzaren etxean. Apirilaren 7a baino lehenago harpidedun egiten direnek jasoko dute liburua etxean; beraz, egun horren ondoren bigarren banaketa bat ere egingo dute.




*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedunei oparituko zaien liburuaren azala.

## Alegiazko munduan barneratzeko aukera

Euskal Herrian garrantzi handia izan du beti ahozko tradizioak. Ohiturak, istorioak, ipuinak... ahoz aho transmititu izan dira mendetan. Txikitan, guztiok izan genuen *Txanogorritxuren* istorioen edo *Pernando amezketarraren* ibileren berri, aitona-amona edo gurasoek kontatuta. Istorio haietako asko eta asko denborarekin ahaztu ere egin dira eta gaur egun ipuin haien zati txikiren bat besterik ez dute gogoan askok. Baina, zorionez, txikitako ipuin haietako batzuk jaso eta betiko gordetzeaz arduratu da norbait; liburu baten biltzeaz, hain zuzen ere.

*Hala bazan... Debagoieneko plazan* izeneko liburuan, ibarreko lau ipuin bildu dituzte. Istorio orijinalak dira batzuk, baina badira herrietan jasotako ipuinak ere. Divina Arriolabengoak eta Arantza Ozaetak, adibidez, Aramaioko aitona-amonen ahotik jaso zuten hontzaren istorioa. Haurrei asko gustatzen zaie ipuinak entzutea, baina nagusiagoak direnek ere gogo handiz irakurriko dituzte ibarreko istorio hauek. Errealitateaz bestalde, bada irudimenezko mundu bat, ipuinena. *Hala bazan... Debagoieneko plazan* liburuak alegiazko mundu horretan murgiltzeko aukera ematen digu. Seguru lorik egin ezinda geratzen dela bat edo beste ipuina entzun eta beste mila istorio imajinatzen.




**'JUANIKO TXISTU'**
**Testua:** Juan Martin Elexpuru.
**Marrazkiak:** Jabier Erostarbe.








**'TORREKO ZUBIXA'**
**Testua:** Jerardo Elortza.
**Marrazkiak:** Jokin Mitxelena.








**'ARRASATEKO DRAGOIA'**
**Testua:** Divina Arriolabengoa (argazkian) eta Arantza Ozaeta.
**Marrazkiak:** Iñigo Sarasola.








**'HONTZA ZERGATIK BIZI DAN GABAZ'**
**Testua:** Arantza Ozaeta (argazkian) eta Divina Arriolabengoa.
**Marrazkiak:** Lorena Martinez Oronoz.





# Martxoak 12–19

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Juanito Oiartzabal** mendizaleak *Hamalau zortzimilakoak* diapositiba emanaldia egingo du eguenean, hilak 18, Olaran etxean, 19:30ean. Berarekin berriketaldia ere egongo da.

### ARAMAIO

► **Arabako bertsolari gazteen saioa** egongo da gaur, egubakoitza, Anboto tabernan, 20:30ean. Manex Agirre, Oihane Agirre, Izar Mendiguren eta Oihane Pereak parte hartuko dute.

► ***Gandhi*** filma eskainiko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:30ean. Sarrera euro bat kostatuko da.

► ***El padrino*** filma eguenean, hilak 18, kultura etxean, 22:30ean.

### ARRASATE

► **Autodeterminazioa eskatzeko** kalejira egingo du Bergarako ekimenak gaur, egubakoitza, Seber Altube plazatik hasita, 18:00etan.

► **Ziar-Ola kultura elkarteak** batzar orokorra egingo du etzi, domeka, euren egoitzan, 12:00etan, lehenengo deialdian, eta 12:30ean, bigarrenean.

► ***Debagoieneko lurralde zatiko plana: ingurugiroari hurbilketa kritikoa*** hitzaldia egingo du Hilario Manzanedok eguaztenean, hilak 17, Monterronen, 19:30ean, Mondraguetarrak taldeak antolatuta.

### BERGARA

► **Demoen aldeko eguna** deitu du gaztetxeak biharko, zapatua. 18:00etan, demoekin tertulia egingo dute; 22:30ean, Kuraia eta Dirties taldeen emanaldia.

► ***Missing*** filmaren emanaldia egongo da etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan.

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte eguaztenean, hilak 17, Seminarioan, 18:30ean.

### ESKORIATZA

► **Eskiatzera irteera** antolatu du Eskoriatzako kirol elkarteko mendi sailak; baita sagardotegira ere, datorren asteburrurako. Izenemate epea eguaztenean bukatzen da, hilak 17. Horretarako, jo Namaste dendara.

► **Guraso Eskolaren** saioa egongo da eguaztenean, hilak 17, kultura etxean, 18:00-19:30. Eskola porrotaren prebentzioaren inguruan egingo du berba Virginia Iglesias adituak.

► **XXI. mendeko pedagogiaz** jardunaldiak antolatu ditu Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak hilaren 26rako. Izena emateko mugaeguna hilaren 18a duzue, eguena. Pedagogia arloko hainbat gai landuko dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 71 41 57 zenbakira (Nekane Arratibel).

### OÑATI

► **Bideo emanaldia** egongo da Bergarako ekintzaileen eskutik gaur, egubakoitza, Arrano elkartean, 19:30ean.

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte gaur, egubakoitza, Txantxiku Ikastolan, 18:00-20:00.

► **Zuhaitz eguna** ospatuko dute hainbat herritarrek etzi, domeka, Natura Eskolak antolatuta. Foruen Plazan elkartuko dira 10:00etan.

► **Mendi astea** antolatu du Aloña Mendik hilaren 15etik 21era bitartean. Hilaren 15etik 18ra bitartean, egunero ikus-entzunezko baten emanaldia egingo dute. Hilaren 15ekoa Santa Anan izango da; gainerakoak, kultura etxean. Guztiok 19:30ean hasiko dira. Bestalde, hilaren 19an ikastaroa egingo dute Pirinioetan. Argibideetarako, jo Aloña Mendiko mendi sailera.

► ***Baloreetan hezi*** hitzaldia egingo du Hilario Garrudo psikologoak astelehenean, hilak 15, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean. Bigarren Hezkuntzakoen gurasoei dago zuzenduta.

► **Realeko jokalariek** futbolaren gaineko hitzaldia egingo dute eguaztenean, hilak 17, Santa Ana antzokian, 19:00etan, Makalena elkarteak antolatuta. Hain zuzen, Iñaki de Mujika, Aitor Lopez Rekarte, Xabi Alonso, Nihat eta Westerweld-ek hartuko dute parte.

► ***Hire Himalaya*** Alberto Iñurrategiren ikus-entzutekoa eskainiko dute eguenean, hilak 18, kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean, Mendi Astearen barne.

► **Antxintxiketan** kirol elkarte berriak aurkezpena egingo du eguenean, hilak 18, kultura etxean, 19:30ean.

► **The Who** taldearen zuzeneko emanaldi baten bideoa eskainiko dute eguenean, hilak 18, gaztelekuan, 22:00etan.

► **Gurasoen eskubideen gaineko** jardunaldiak egongo dira Guraso Eskolan hil bukaeran. Argibideetarako, deitu Udal Gizarte Zerbitzu sailera (943 03 77 00).

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Divinas*** antzezlana eskainiko du Oihulari Klown taldeak etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean, Emakume Txokoak antolatuta.

► **Umorezko bakarrizketak** antzeztuko dituzte Alex Rabanal eta Andoni Agirregomezkorta aktoreek egubakoitzean, hilak 19, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, 00:00etan.

### BERGARA

► ***The intrepid Irish*** umorezko emanaldia egingo du Macrea aktoreak gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 23:00etan. Sarrerak, 6 euro.

► ***Ugaztun baten antsiak*** antzezlana egongo da eguaztenean, hilak 17, Pol-Pol tabernan, 22:00etan.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA



► KONTZERTUAK

## MADDI OIHENART ETA JOSETXO GOIA-ARIBE, GAUR OÑATIN

Zuberoatik eta Nafarroatik etorritako folk-jazz doinuekin gozatzeko aukera izango dugu gaur, egubakoitza, Oñatin. Laixan elkarteak, Topagunea euskara elkarteen federazioaren Kultura Errota egitasmoaren barne, Maddi Oihenart zuberotarra eta Josetxo Goia-Aribe saxofoi jotzaile nafarraren kontzertua antolatu du. Lizardi, Etxahun, Itxaro Borda, Jon Mirande eta beste batzuen hitzak kantagai hartuz, *Ilhargi-min* izeneko diskoa aurkeztuko dute bi musikariok. Juantxo Zeberio Etxetxipia piano jotzailea izango dute lagun agertokian. Sarrera txartelak Santa Ana antzokian bertan izango dituzue eskuragai, 6 eurotan.

**Non:** Oñatiko Santa Ana antzokian. **Noiz:** martxoak 12, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean. **Sarrerak:** 6 euro.

Muskulazio entrenatzaile titulu nazionala

LANBIDE HEZIKETA



Ramón Lacaba
Jon Iriberri
Aritz Berrostegieta

Apirilak 2, 3 eta 4
Arrasaten
Arizmendi ikastolako San Viator gunean
Beti Ona gimnasioan

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA
Arizmendi ikastola
943 77 20 25
Lanbide Heziketa, TAFYD
943 79 03 14
arizmendi@arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea



## KOLDO AMESTOYK IPUIN KONTAKIZUNA EGINGO DU ESKORIATZAN

*Harriola Marriola* muntaia aurkeztuko du Koldo Amestoy Iparraldeko ipuin kontalariak gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Humanitate Fakultatean, 22:00etan. Emanaldia bertan behera geratu zen orain dela bi aste, elurteagatik; eta orain gozatu ahal izango dugu Amestoyren kontakizunaz. Euskal mitologia, historia eta ahozko tradizioko elementuez baliatuz, unibertso propioa sortzen du Koldo Amestoyk.

### ESKORIATZA

► ***Harriola marriola*** ipuin emanaldia egingo du Koldo Amestoy kontalariak gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:00etan.

### OÑATI

► ***Las mujeres de verdad tienen curvas*** antzezlana eskainiko du Ados taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Txartelak 6 eurotan daude salgai aldez aurretik kultura etxean; 8tan, txarteldegian.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Claude Young eta Steve Bug** musikariek techno estiloko emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan.

